



ELKARRIZKETA

Daniel Innerarity:
*Teknikak eragin
dituen problemak
politikaren bidez
konponduko ditugu,
edo ez ditugu
konponduko*



EZTABAIDA

Pentsioen
erreforma
auzitan



HITZES HITZ

Itzulpen estiloa.
Axularrekin
hizketalditxoa (1)

EDORTA ESPAÑA




GRAMATIKA

Erakusleak
testuen jostun (1)

JUAN GARTZIA

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

Zuzendaritza:

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:

Xabier Amatria

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea:

Itxaropena S.A.

Ilustrazioak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lankideak:

Zuriñe Aguirre, Joseba Alava, Kaxildo Alkorta, Xabier Amatria, Pako Aristi, Jon Arizkun, Manu Arrasate, Urtzi Barrenetxea, Luis Elizondo, Miel A. Elustondo, Edorta España, Irene Fernández, Juan Gartzia, Xabier López Askasibar, Luma, Gorka J. Palazio, Nerea Pikabea, Amaia Ugartemendia, Iñaki Villoslada, Izaskun Zuntzunegi.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

aldizkarian argitaratutako artikuluak berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikuluak nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulu eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ISSN: 1576-5563

Legezko Gordailua: BI-1141-93

Egilea: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea

Donostia-San Sebastián 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ.

Tel. 945 01 76 37

www.ivap.euskadi.net

Aurkibidea

- 4 **Pasadizoak**
Historiako lehen biltzargunea (2)
- 5 **Pertsonaia**
David de Jorge
- 6 **Elkarrizketa**
Daniel Innerarity
- 10 **Gramatika**
Erakusleak testuen jostun (1)
- 13 **Eztabaida**
Pentsio sistema hobetuko du erreformak?
- 17 **Lanean euskaraz**
Posposizioa versus Preposizioa
- 18 **Lehiatila**
ARABA HANDIA
Fermin Etxegoien
- [**ARIKETAK**]
- 19 **Ba al zenekien?**
Espainia kantu baten beldur
- 20 **Informazio eta komunikazioaren teknologiak**
Google Docs, dokumentuak edonondik partekatuz
- 22 **Erreportajea**
EAEko hiriburuak boladan
- 26 **Lehiatila**
ITZULTZAILEAREN AMODIOA
Xabier López Askasibar
- 27 **Hitzez hitz**
Zure iturri freskora nator
- 30 **Giza baliabideak**
Kreatibitatea nola kudeatu erakundeetan
- 32 **Berriak**
Mundua on line
Sare sozialetan pribatutasuna nola gorde
- 33 **Ba al zenekien?**
Aaaaa!! eta Eeeee!!
- 34 **Denbora-pasak**

JOXERRA INTERÍNEZ

Behin-behineko funtzionarioa

interinez@mindless.com



Historiako lehen biltzargunea (2)

KAXILDO ALKORTA

LAGUNA

Istorio xumeek, zenbat eta hari meheagokoak izan, den-dena azaltzen duten istorioek baino gehiago balio dute irudimenaren argiak pizteko eta iradokimena eta etorria askatzeko. Noerena eta Uholdearena xume-xumea da. Irakurri nahi duenak Biblian du. Irakurri ahala edo entzun ahala, imajinazioan oso pelikula erakargarria ikusten da.

Han Noe, seihun urteko gizona, Jainkoak euri-jasa gogorak iragarri zizkiola eta, ontzia egin behar zuela. Bere hiru semeen eta errainen laguntza beste inorena ez zuen.

Non ari zen hartan: itsaso ondoan? Ez dakigu. Halako ontzia egiteko egurra ugari behar eta, baso ingurua bai izango zen hangoa. Zer pentsatzen ote zuen jendeak gizona zeregin hartan ikusita? Marmarka jardungo zuten, irribartxo maltzurka, barre ere egingo zioten; bakarren batzuk ausartuko ziren hurbildu eta begira geratzen, eta baten batek galdetu ere egingo zion “Zer habil ba?; norako asmotan edo?”, eta Noek erantzun “Laster euria gogor egin behar dik-eta”, “Hainbeste bai?”, “Bai”, “Nola dakik ba?”, “Hezurak, motel, hezurak!; kexa besterik ez ditek”. Egia ezin esan eta nolabaiteko erantzunak asmatu behar.

Planoak egin, arbolak bota, oholak atera, iltzeak inguratu, tresnak lortu... Erraz agindu zion Jainkoak “Egin ezak heurtzat ontzi bat erretxina-egurrez”.

Beste enkargu bat ere eman zion: “Hartu animalia mota guztietatik bikote bana, ar-emeak, eta sar itzak haiek ere ontzian”. Lan samurra zen ba! Zer egin lehoi bikote bakarra aukeratzeko edo inurri pare bat besterik ez apartatzeko eta beste guztiak urruntzeko, eta eltxomota bakoitzeko pare bat soilik, ez gehiago, sar zedin ontzian? “Ahaleginak behintzat egingo dizkiagu eta, gero gero-koak” esan bere artean eta lanari ekin zion.

Laster konturatu zen, ordea, animalia asko haragijaleak zirela eta haiek, gosetuta, ez zutela bat ere erreparorik izango belarjaleak atzaparka hil eta jateko. Uholdeak luzaroan iraungo zuen eta berak animalia guztiak bizirik eta osasuntsu zaindu behar zituen urak beren onera itzuli arte. Urduritu egin zen. “Hau konpondu beharra zegok. Jaunarekin hitz egitera joango nauk arratsaldean, ea zer esaten ditan”.

Ikusi Noe arratsaldean mendia igotzen eta, han goian, Jaunarekin tratuan. Hori pentsatzen zuten urrutitik begira zituzten seme-erriak Jauna lasai eta Noe keinuka, imintzioka, espantuka ikusita. Luzaroan jardun zuten isilune eta ekinalditan. Eta zer edo zer lortu zuen Noek, pozik itzuli zen eta. Etxekoei ez zien ezer kontatu hala ere: tratua garrantzitsuegia zen jendeari nolahi azaltzeko, ez zen hartarako une egokia! Politika.

Animalia guztiak ontzi barruan zirela, Noek hitzaldi hunkigarria egin zien Jaunaren aurrean. Guztiek errespetu osoz entzun zioten eta animalia-legez jokatu-ko zutela, hots, gizakiek baino hobeto, agindu. “Galderarik bai?”, eta tximinoak lotsagabe: “Elkar errespetatuko diagu, bai. Baina bikotekakoa zer? Egiterik izango diagu ba!” Noe ezetz esaten hasi orduko Jaunak erantzun zion: “Bai, tximino, bai!” Animalia guztien txalozaparrada jaso zuen tximinoak Noe baino bitartekari hobea izan zelako.

Diotenez, Uholdeak iraun bitartean, ilunabar, ostantz eta eguerdi parte guztietan animazio ikaragarria sortzen zuten bikoteek eta ontzi barruan egundoko hasperenak, ufak, atsegin-zotinak, arnas hotsak zirela jabe, eta ontzia balantzaka hazten zela, balantzak handitu, izugarritu eta Noe beldurrak airean egoten zela. Ondoren, isilune luzea eta ontziaren atsedena. Eta betiere, euria.

Elkar errespetatzeko tratua hura apurtzeko arrisku ederrean jarri omen zuen behin okilak. Goiko solairutik beheko-ara, animalia handienara pasa omen zen eta flotazio-marra baino beherago zuloa egiten hasi. Eskerrak tigrea konturatu zen! Baina harrapatu eta akabatu izan balu...

Segi imajinazioan botatzen ari diren pelikula ikusten. ■

DAVID DE JORGE, SUKALDARIA:

NEREA PIKABEA. KAZETARIA

Sukaldaritzaren grina helarazten digu egunero Hondarribiko sukaldari gazteak ETB-2n egiten duen *Robin Food* saioaren bitartez. Bere hizkera fresko, zuzen eta hurbilarekin gazteengana gerturatzea lortu du. Berrogei urte ditu eta Munduko Libururik Onenaren Saria jaso berri du iaz kaleratu zuen *Con la cocina no se juega* liburuarekin.

Sukaldaritzarako joera familiaratik al datorkizu?

Ez, etxean ez baitugu sukaldaririk, baina beti gustuko izan dugu ondo jatea. Nire kasuan bokaziozkoa izan da: txikia nintzenetik sukaldari izan nahi nuen. Nire bizitza profesionalean bada garrantzi handia izan duen pertsona bat: Martin Berasategi. Urte asko daramatzat berarekin lanean.

Sukaldean aritzeko harra piztu zaion gazte askok idazten digu

Zer moduz *Robin Food* saioarekin?

Oso gustura nago. Azken batean sukaldean aritzeko aukera ematen dit; horixe da egiten dakidan bakarra. Ongi pasatzen dut. Ordu asko ematen ditut lanean, baina aldi berean oso esker onekoa da.

Saioa freskoa da eta gazteekin konektatzea lortu du...

Modu naturalean sortu da dena. Historiak funtzionatu egin du benetakoa delako, lelokeria edo txorakeriarik gabekoa. Herri honetan gastronomia oso garrantzitsua izaten ohituta gaude. Nik uste dut programa honek tabu asko hautsi dituela. Sukaldean aritzeko harra piztu zaion gazte askok idazten digu.

Ezinezko nahasketen atal bat duzu saioan.

Bai, "Guarrindongadas" deitu diogu. Ezkutuan gordetzen dugun horri garrantzia kendu nahi izan diogu; guztiok jaten dugu zerbait ezkutuan, ezinezko nahasketa higuigarri hori. Ehunka errezeta bidaltzen dizkigute.

Sare sozialen alde gehien apustu egin duen sukaldarietako bat zara...

Informazio asko jasotzen dut, eta ikusentzuleekin harremanetan jartzeko aukera eskaintzen dit. Gehienetan gazteekin konektatzen dut. Sukaldaritzarako tresna erabilgarriak dira.

Janaria azkar prestatzeko aholkuren bat eman daiteke?

Aurreikuspena, errezeta sorta finko bat izan eta presio-eltzea ongi erabiltzen jakin. Lehen, dena etxearen inguruan mugitzen zen, baina orain uste dut etxe-



Argazkia: López de Zubiria

tik ihes egiten dugula etengabe. Gaur egun ez da ia inor aritzen sukaldean.

Ze baldintza bete beharko lituzke pertsona batek sukaldari ona izateko?

Pasioa eduki eta diziplinatua izan. Hori funtsezkoa da. Beldurrik ez izan lanbidea erakuts diezazuketen tokietan muturra sartzeko. Nagitasunik ez izan garaiz iristeko eta diziplinatua izan. Eta galdeztzeko lotsarik ez izan.

Sukaldaritzatik at, denbora librerik ba al duzu beste gazetarako?

Ordu gutxi geratzen zaizkit; baina saiatzen naiz, azken batean, horrek elikatzen baitu nire bizitza. Sukaldea nire pasioa da, baina hori eramangarria izateko garrantzitsua da, baita ere, bestelako gauzak egitea. Ostera bat egin, musika entzun edo ezer egin gabe egon; *offean* egon. ■



DANIEL INNERARITY:

Aztoramenaren ordeztu, gogoeta behar dugu

MIEL A. ELUSTONDO
IDAZLEA ETA ARGAZKILARIA

Lehen ere izana dugu Daniel Innerarity (Bilbo, 1959) aldizkari honetan. Azkena, IVAPen 25. urteurrenaren karietara egin zuen hitzaldia izan zen aitzakia. Orainaren tiraniaz ari zen orduan, esanez ondoko belaunaldiek gu egiten ari garen gehiegikeriak jasango dituztela. Oraingo honetan, berriz, gobernantzaz ari da Innerarity, orain artekoa ez bezalako gobernamendu-moduaz, filosofo honen argitan.

Demokrazia, berez, ordezkapenaren, delegatzearen eta parte-hartzearen arteko konbinaketa orekatua da

Joan den urtearen amaieran Gobernantza Demokratikoaren Institutua ireki zenuen Donostian. Eta galderak parrastan datozkigu: zergatik, *gubernantza*? Zergatik *demokratikoa*? Zergatik *institutua*? Zergatik, zergatik, zergatik...

Gobernantza Demokratikoaren Institutua ikerketa-zentro bat da, eta gobernanzari dagozkion alderdi guztietan, direnetan eta ez direnetan, programak lantzen eta garatzen egiten du lan. Esaterako, gobernantza globala, Europa, tokian tokiko gobernantza, gobernantza demokratikoa, teknologiaren eta jakintzaren gobernantza, eta gobernantza energetikoa eta ingurumenarekikoa. Munduan barna badira gisako zentroak, eta haietarik batzuekin elkarlanean ari gara, dela Florentziako Europar Institutuarekin, dela Pariseko Frantziako Kolegioarekin edota Municheko Gobernanzari buruzko Ikerketa Institutuarekin. Guk, gure aldetik, nazioarteko erreferentzia zentro izatera iritsi nahi dugu, eta Euskal Herrian gizarte zientzien alorrean egiten den ikerketa nazioartera zabaltzen lagundu. Horixe gure asmoa.

Lagunduko diguzu zuzen ulertzen erran delako *gubernantza* horren esanahia?

Kontzeptu berria da, eta hala denez, itxaropenez bezainbat zalantzaz bete dator. Batetik, ohiko terminoek bete-betean definitzen ez zuten errealitate berriak adierazteko balio du; eta bestetik, berriz, politika berriztatzeko itxaropena suspertzeko. Izan ere, hamarkadak dira diskurtsoa bilin-balan dabilela, plangintza teknokratikoaren eta gobernatzeko ezintasunak dakarren desanimorearen artean. Politika arloan, gobernanzak nazio-estatuaren barruan, edo haraindi, dauden gobernatzeko era berriak adierazi nahi ditu ekonomia munduan, ostera, merkatuen erregulazioaz edo enpresen barne-antolaketari buruz jarduteko erabiltzen dute; juristei dagokienez, perspektiba honexetatik aztertzen dituzte administrazioen erreforma, zuzenbideak mundu globalizatuan duen egitekoa, eta gainerako gaiak. Erran nahi baita, gobernantza ikertzea lan ikaragarri handia dela. Osorik birpentsatu behar dugu estatuak, merkatuak eta gizarteak osatzen duten triangelua, edo, bestela esanda, hierarkiak, merkatuak eta sareek osatzen duten bil-

bea; izan ere, ez dago haiek bata bestea gabe pentsatzerik. Estatuaren eta gizartearen arteko porositateak, edota estatuaren eta nazioarteko espazioaren artekoak, interdependentzia-dentsitate oso handia eragin du, eta korapilo hori ulertu eta kudeatu nahi badugu, jadanik ez ditugu aski garai bateko tresnak: mundua bereiziagoa zegoenean, interkonexioak txikiagoak zirenean eraturako erremintak ez zaizkigu, gaurrez gero, baliagarri. Eta horra erronka, hots, interdependentzian bizi diren eragileen arteko espazioan gertatzen diren komunikazio- eta kooperazio-prozesuak ulertu eta gobernatzea. Lana ez da baitezpadakoa. Horretarako, unibertsitate-lana –hau da, ikerketa akademikoa– eta gizartearekiko proiektzioa, bata bestearekin, lotu behar dira. Nola lotu? Jakintzaren zabalpenaren bidez, horrek ere unibertsitarioen ardura izan behar baitu. Bide horretan, hainbat erakunderentzako aholkularitza-lana ere egiten ari gara, izan udalak, izan diputazioak, Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra eta Europako Legebiltzarra.

Utzidazu galdera egiten: *nork eta nork gobernatzen dute mundua? Nork gobernatzen du herrialdea, edo delako*

Gure gizartea geuk usteko genuena baino kontrol-gaitasun eskasagoa dugun egoeran bizi da nahitaez

entitatea? Dela herria, dela estatua, dela nazioa, Europa edo mundua. Gobernantzaz ari zara, baina *Globernantza* ere irakurri izan dizugu...

Egia duzu. Munduan interdependentzia areagotzen ari da, horixe du gure mundu honek ezaugarri, eta, ondorioz, ez da erraza ahalmenak zuzen kokatzea, arduradunak identifikatzea, mugak ongi zehaztuak zituen mundu bati dagozkion ohiko estrategiak erabiliz geure buruak babestea: geure baitan ixtea, pasabidea galaraztea, norberaren eskusibotasuna defenditzea, beste aldera begiratzea... Kito da hori. Orain begien bistako errealitatea da denok ontzi berean goazela, batik bat arrisku bertsuak partekatzen ditugulako. Horrek, nahitaez, orain arte ez bezala geure buruak gobernatzea behartzen gaitu, orain arte baino askoz ere modu kooperatiboagoan.

Herrialdea, estatua, nazioa... Non dira pertsonak, non familiak, oinezko herritarrak eta, diren eta ez diren, gobernu guztien politiken jasotzaileak? Zein egitekoe dagokie herritarrei?

Hara, horixe da Wikileaks kontuak, edo Afrika iparraldeko erreboltek erakutsi duten gauzarik interesgarrienetako bat: alegia, gizarteak nazioarteko agertokiaren erdi-erdira irten dira, estatuak epai-

tzen eta zaintzen dituzten eragile gisa, giza eskubideak errespetatzen eta gobernatzeko era demokratikoak gero eta gehiago exijitzeko estatuari.

Demokrazia parte-hartzailea, demokrazia ordezkatzaila? Bata, bestea, biak?

Demokrazia batean garrantzizkoa da ordezkartzaren eta parte-hartzearen arteko artikulazio egokia izatea. Biak dira beharrezko eta, are, batak bestea osatzen du. Osagarri dira. Eta horrela esan dut, halako aurreuste aski zabaldu bat dagoelako. Usteko da ordezkartzak bereizi egiten duela sistema politikoa jendearengandik eta, aldiz, parte-hartzeak hurreratu. Parte-hartzea gauza garrantzitsua da; baina ez, ordea, ordezkartzaren kaltetan. Ordezkartzak aniztasuna errazten du, denok ordezkatuak izateko balio du. Ordezkartza-prozedurarik ez balego, parekotasun irizpiderik edo diskriminazio positiborik ez balitz, ez genuke babesik, adibidez, emakumezkoen izateko eskusioaren aitzi, aktiboago diren taldeen gehiegizko ordezkartzaren kontra, eta ez genuke espazio publikoa babesten asmatuko, interes-taldeen presioaren aurka. Erran nahi baita, demokrazia, izan, bi printzipioen arteko konbinaketan zimendatzen den sistema dela: ahalik eta parte-hartzerik handiena, erabakiak hartzea zailtzen ez den heinean, eta behar den ordezkartzarik handiena, aniztasuna ziurtatzeko eran.

Zergatik, esaterako, parte-hartzeko bideak eskaintzen dira eta, aldi berean, ukatzen dira, eta gutxiesten, hainbat herri-kontsultatan herritarrak eman izan duen iritzia?

Herri-kontsultak direla-eta, gero eta eskarmentu handiagoa dugu, eta orain badakigu ez direla demokraziaren panacea. Kontsulta batzuk oso lagungarri gertatu dira erabaki demokratikoa hartu ahal izateko, eta, beste batzuk, aitzitik, sekulako desastrea gertatu dira. Badio-

tsut, demokrazia, berez, ordezkapenaren, delegatzearen eta parte-hartzearen arteko konbinaketa orekatua da.

Zer datorkizu burura *krisi* hitza entzuten duzunean? Ekonomia krisia, politikoa, Ekialde Hurbilekoa?...

Krisi hitzak bi dimentsio ere baditu. Batak egoera ezohiko eta iragankorak aipatzeko balio du; besteak, aldiz, bizi garen mundua izendatzen laguntzen du, hots, mundu *kritikoa*. Eta guk, mundu horretan bizi garenok, garai batean genuen baino ziurgabetasun handiagoa kudeatzera ohitu behar dugu, ezegonkortasun handiagorekin bizitzen ikasi. Bestelako normaltasuna amets duenak ez du ulertu berrikuntzaren gizartea –gure gizartea– geuk usteko genuena baino kontrol-gaitasun eskasagoa dugun egoeran bizi dela nahitaez.

Uste genuen informazio eta teknologia berrien gizartea pagotxa zela, ez genuen gisa honetako krisi latzik espero...

Ezker-eskuin, porrot egin duten teknologiak besterik ez dugu inguruan. Horra bateko, finantza-berrikuntzak; besteko, energia kutsagarriak... politikak parte-har dezan eske, lagun diezaien. Inoiz ez da orain baino garrantzizkoagoa izan ongi gobernatzea, mundua jasangarriagoa, ziurragoa, zuzenagoa izan dadin. Lehen, uste genuen ez zela problemarik bat ere, etorkizunean, teknikaren bidez konpontzeko gai izango ez ginena. Gaur egun, aldiz, pekoz gora jarri dugu ikuspuntua –nahiz eta jarrera apalagoan–, eta aski ziur gaude teknikak eragin dituen problemak politikaren bidez konpontzeko ditugula edo, bestelakoan, ez ditugula inola ere konpontzeko.

Ez da asko, iritzi-artikulu irakurri dizugu, “Zertan pentsatzen dute politikariek?”, joan den abenduaren 6an Parisen egin zen eztabaida baten kariatara argitaratu zenuen. Artikuluaren

amaieran, idatzi zenuen: “[Pentsalari] guztiak bat etorri ziren esanez, politikarien erabakiek gogoeta intelektual handiagoa izan behar dutela oinarrian, eta epe luzeko ikuspegia baliatu (politikariek ez dute etorkizunean askorik pentsatzen, ezpada beren etorkizunean, bota zuen, zirtolari, Daniel Cohn-Benditek)”...

Denek esan zuten, politikak, gaur egun, eta oroz gain, gogoeta behar du. Oso gauza paristarra da nostalgiatik hasia, eta izan zen duela hogeita hamar urte egin ohi ziren eztabaida haien mira izan zuenik. Izan zen esan zuenik politikarekiko dagoen ondorearen arrazoen artean, lan intelektual eskasa ere jarri behar dela; zuzendu egin behar zela oker hori eta, horretarako, beharrezkoa zela politikarien eta pentsalarien arteko harremanak estutzea. Baina delako harremana ez da erraza: hala teknokrata adituaren eredu, nola intelektual engaiatuarena, lan intelektualaren nagusitasun-ideiaren mende daude, eta horrek ez dio zor zaiona ematen erabaki politikoen konplexutasunari, ez politika kontuak zuzentzen dituen logikari ere, non egia eta gaitasunaz gain, legitimitatea eta aukera ere oso aintzat hartzekoak baitira. Bi logika hauek –gogoetarenak, batetik, eta erabakiarenak, bestetik– elkar errespetatzen ez duten bitartean, bien arteko harremanak ez du gizarte hobeto gobernatutako bat ekarriko. Eta, azken finean, horixe da helburua, gizarte hobeto gobernatzea, ez besterik... Pentsamendu politikoa berritzeko obligazioa dutenek premiazko lan batzuk ere badituztela esango nuke: gero eta konplexuagoa den errealitatea zehaztasunez aztertzea –nahiz eta kritika lehenesten duenak nahiago duen horri kasurik ez egin, elkar ulertzearen kaltetan–, ikuspuntu-barietate handiagoa entzuteko betebeharra betetzea –izan interes ezberdinak, izan metodo zientifiko berriak– eta apaltasuna izatea.

Apaltasuna?

Bai, bertute intelektual hori ere itzuleran dator, ziurtasun ideologikoen denbora handian alferrikakotzat eduki eta gero. Gaur egungo gizarteak ezjakintasuna berreskuratu du, kudeatzen ikasi behar duen zerbait du. Eta, itxura guztien arabera, politikazko ika-mikarik nagusienak hortik etorriko dira, ez jakiteak eragiten dizkigun galdera horietatik alegia: zenbateko ezjakintasuna onar geniezaioke geure buruari? Nola murriztu dezakegu ezjakintasun hori aurreikuspen-prozedura bidez? Zein eta zein arrisku har ditzakegu, eta zein ez? Ageri denez, gaur eguneko intelektualaren lana ez da oso gauza heroikoa eta, aldiz, bai oso humanoa, garai batean genituen ziurtasunekin alderatuz gero, behintzat. Funtsezkoa da geroa agenda politikoa agerraraztea. Ez dugu hainbeste kezkatu behar berehalako orainarengatik; aldiz, gure buruak hodeiertza tenporal zabalagoetara ireki behar ditugu. Horretarako, geroa aurreikusteko eta hari aurrea hartzeko tresnak hobetu behar ditugu, oraingo ekonomia krisiak erakutsi duenez, oso gaizki jardun baitugu horretan.

Teknikak eragin dituen problemak politikaren bidez konponduko ditugu edo, bestelakoan, ez ditugu inola ere konponduko

Iragan abenduan Gobernantza Demokratikoaren Institutuak egindako jardunaldietan eleaniztasunaz ere hitz egin zen, Europako Batasunaren ardatz ei da eleaniztasuna mundu globalean. Ba ote?

Estatuek gauzak uniformizatzeko joera izan dute beti, baina gero baino gero kontzienteago dira arlo guztietan ere aniztasun handiagoa onartu behar dutela; orain artean kudeatu dutena baino handiagoa, zinez. Horretara jo beharko dute, hizkuntza-dibertsitatearen kasuan ez ezik, baita aniztasun politiko, erlijioso edota kulturalaren kasuetan ere.

Gobernantzaz hasi gara hizketan, eta honetaz eta hartaz jardun dugu gero. Azkena, ez da galdera, aholku-eskea baino. Alegia, mundua pentsatzen lagun diezaguzun eskatu nahi dizugu. Nondik hasi?

Gogoetatik bertatik. Mundua gero eta konplexuagoa da, eta hura ongi ulertzekotan, garai batean baino ahalegin handiagoa egin behar dugu. Inoiz baino garrantzizkoagoa da ideiek politikan jokatzen duten rola, gertatzen ari denari buruzko interpretazioak egitea. Aztoramenaren ordez, gogoeta behar dugu. ■

Erakusleak testuen jostun (1)

JUAN GARTZIA

IDAZLEA

Erakusleen erabilerari buruzko ikastaroekin hasi ginenean, gogoan dut, harrituta geratzen zen jendea. “Horrenbesterako ematen al du gai horrek?”, zioen askok, edo esan gabe adierazten: “Beste arazo batekin al hator?”.

Gaur egun, jende horri berari betetzen zaio ahoa “anafora-sistema” eta “testuko erreferentzia-sarea” aipatzen duelarik, eta pozgarri da ikustea dagoeneko barnertatuz goazela halako kontu gero eta gehiago ateratzeak ez duela esan nahi motza edo okerra zenik aurreko testugileen ibilia, baizik eta, aitzitik, aurrera egiteak berak dakarrela testugintza-irizpideak findu beharra.

Kontuak kontu, testuen langintzan dihardutenek harrera ona egin diete, besteak beste, *Joskera lantegin* azaldu nituen irizpideei eta, batez ere, erreferentziatzat darabiltzate EIMako estilo-liburuaren parte den *Kalko okerrak* liburu-kian horri buruz –aukeran laburtxo– esandakoei.

Artikulu pare honetan, apur bat garatu nahi dut, testugintzaren perspektiban kokatuz, erakusleen erabilerari batzuei dagokiena. Lehen alean, izenordain erakusleak izango ditugu hizpide, eta, bereziki, lehen graduko ena.

Bigarrenean, lehena osatuz, izenondo erakusleen erabilerari helduko diogu. Egungo testugintzan nagusituz doan bidea zehaztuz emango ditugu azalpenak eta gomendioak, erabilerok landu edo zorrotzu nahi dituen testugilearentzat lagungarri izango direlakoan, eta testuen irakurleentzako onura. Hala biz.

Hau ez da ez hori eta ez hura

Lehenik eta behin, erakusle guztiei dagozkien bereizkuntza batzuk. Bat, gramatikarekin lotua: ez dira alde guztietatik zaku berean sartzeko, erakusleen artean, izenordainak (*hau, hemen*) eta izenondoak ([objektu, leku, denbora, kontu] *hau, honetan*). Izan ere, izenondoa izen batekin doanez, izen horrek laguntzen du erreferentzia zehazten.

Horregatik, *filosofo honek/horrek/hark* idazten badugu, erakuslearen gradua gorabehera, erraza izaten da anafora horren erreferentzia aurkitzen (aipaturiko

filosoforen bat); errazago, nolana ere, *honek/horrek/hark* soilak erabilia baino. Eta berdin, noski, *gela hau* esanda, *hau* esanda baino¹.

Bestalde, izenordainak, izenik ez eramate horri esker, badu berezko zehaztugabetasun bat erreferentearen izaerari dagokionez, eta ongi bil ditzake erreferente abstraktuak ere. Alegia, *hau/hori/hura* diogunean, erreferentzia, mahai bat zein bestelako izaki bat ez ezik, orobat izan daiteke gertakari bat, egoera bat, esaldi bat zein ideia bat².

Horraino, bada, gramatikarekin loturikoa. Bistan da, hala ere, nola gurutzatzen den, ber-bertatik, semantika.

Hurrena argitu beharreko kontua, hain zuzen, semantikaren esparru zabalago bati dagokio, eta hartan inplikaturik daude testua eraikitze oinarritzko baliabide batzuk; besteak beste, “anafora-sare” delakoa.

¹ Ez dira nahasi behar, nahiz itxura bera izan, *hau* izenordaina eta (testuinguruan ulertzen delako) izena isilduta doan (*gela*) *hau* eta gisakoan ([izen +] izenondo] egitura.

² Gaztelaniaz, morfologiak bereizten dira maskulinoa, femeninoa eta, halako erreferenteetarako, neutroa: *éste/ésta/esto*.

Izan ere, erakusleek badituzte testuetan, izen eta itxura beraren pean, zenbait funtzio, erakusle-mota bati baino gehiagori dagozkionak.

Oinarrizkoena, *deixi* arrunta, solaskideak presente dauden egoerari dagokio. Hiru graduak, kasu horretan, NI-ZU-BESTERIK koordinatuen arabera antolatzen dira: *hau/hori/hura*. Izenordain pertsonalaren erreferentziarekin bateratsu doa leku-deixia ere: *hemen/hor/han*. Berdintsu, espazioaren proiektzio gisa, denbora-deixia: (*garai*) *honetan/horretan/hartan*.

Hiztunak, erreferentzia deiktikoa berez garbi ez dagoenean, *fisikoki seinalatzen* du erreferentea, keinuren batez.

Bistakoa da idatzizko testuak ezin duela halako keinurik egin, eta, bestela ere, hizketan ari garenean ez bezala, haren deixi-koordinatuak ez daudela garbi, leku/une batean idatzi dena beste edonon/edonoiz irakur baitaiteke. Horiek horrela, nekez balia dezake testu idatziak izenordainezko deixi arrunta, hots, *hau/hemen* esanik egoki adierazi zertaz ari den³.

Testu idatzietan, beraz, bestelako erabilera izaten dute maizenik erakusleek. Beste erabilera hori ere, haatik (edo puska handi bat bederen), hizketan berdian baliatzen dena da. Izan ere, erakusleek, deixi arruntaz gainera, badute beste funtzio nagusi bat: *anafora*.

Anafora hitzak errepikapena adierazten du, eta zentzu jakin batean ulertu behar da erakusleen kasuan: testuan (mintzatuaren zein idatzian) ageri den erreferente bat, bere horretan errepikatuz aipatu beharrean, *ordezkatu* egiten du izenordain erakuslezko anaforak.



Hala, bada, deixi arruntak erreferentea *aurkeztu* egiten du diskurtsoan, koordinatu batzuetan kokatuz; anaforak, berriz, *berriro dakar* diskurtsoko erreferente bat.

Anaforaren bitartez aipatzen den erreferente hori, diskurtsoak aurkeztua izanik (eta ez egoeran seinalatua), ez dago lotua testua gauzatzen den leku eta unearekin. Diskurtsoaren barneko lotura egiten du anaforak, eta, beraz, *han* kokatzen da (diskurtsoak irudikatzen duen munduan); hots, besterik ezean, hirugarren graduan:

Aneri eskatu diot etortzeko, eta **hura** [Ane] etorriko da.

Hondartzan aurkitu dut, eta **han** [hondartzan] gelditu da.

Anaforak ordezkatzeko duena erreferente abstraktu bat bada, hala nola perpau baten edukia (enuntziatu bat anaforaren erreferentea), erreferente hori *hor* (testuan) dela irudikatu ohi da, eta, beraz, bigarren gradura jotzen da gehienetan:

Ez dakit etorriko den, baina **hori** [etorriko dela] esan dit.

Isilik egon da haurra, baina **horrek** [isilik egoteak] harritu nau.

Lehen gradua, berriz, markatuagoa da, hiztunaren edo idazlearen gune eta uneari lotua baitago, eta ez da berez egokia halakoetarako, deixi arrunta nagusitzen baita (edo, bestela, berehala ikusiko dugunez, *katafora*):

Aneri eskatu diot etortzeko, eta **hau** [ondoran duzun norbait?] etorri da.

Hondartzan aurkitu dut, eta **hemen** [zauden lekuan?] geldituko da.

Isilik egon da haurra, baina **honek** [ondoko honek] kezkatzen nau.

Azken adibidean, bi modutan uler daiteke lehen graduko erakuslea:

- deixi arruntaz: hiztunaren ondoan dagoen objektu nahiz izaki bat erreferentea.
- adiera abstraktuan: *hori* interpretatu ohi den moduan (enuntziatua erreferente), baina, kasu honetan, ondotik adieraziko den hori delarik erreferentea:

Honek [orain esango dudanak] kezkatzen nau: adi-adi egoteak/zegoela.

Erabilera horretan, erakusleak *katafora* markatzen du; alegia, jada diskurtsoan aurkezturik dagoen erreferente bat ordezkatu beharrean (*anafora*), ondotik adieraziko den erreferente bat ordezkatzeko, hari aurreraturik. Katafora guztiak (eta anafora guztiak) ez dira erakusleek baliatzen, baina erakusleen erabilera ohikoenetarikoa dira anafora eta katafora.

Kataforan, ahozkoan, oso eten markatua egiten da, haren ondotik nabarmentzeko kataforaren erreferentea. Idatzian, ahozkoa islatuz, bi puntuek markatu ohi dute erlazio kataforikoa, are erakuslerik tartean ez denean (: = *hau da*). Erakuslerik erabiltzekotan, hor ez du inork zalantzarik egiten: lehen graduko erabiltzen da:

³ Aipatu dugun bezala, izenordaineekin ez bezala, izen batek argitu dezake erreferentea, eta halako izenordaino deixi arrunta ohikoa da noski idatzian ere: *mundu/herri/liburu/atal/une/kasu hau/honetan*.



Ez dakit etorriko den, baina **hau** [orain adieraziko dudana] esan dit: “Ez nuke huts egin nahi”.

Beste elementu batzuk ere erabil daitezke kataforikoki: esaldi honetantxe, adibidez, (*elementu*) *batzuk*. Beste graduetakoa erakusleak erabiltzen badira (erakuslerik ez denean bezala), ez dira erakusleak berak kataforaren markak, bi puntuak baizik (: = *hau da*):

Une hartan, <hori/>hala esan zidan: [hau da:] ez zuela gogorik.

- <hori: aipatutakoa
- <hala: adierazitako moduan/hitzetan

Orain artekoa laburtuz, bada, lehen graduak bi erabilera (hauek) ditu berezko:

- deixi arrunta [hau: hemen dudan zer-bait edo norbait, nagoen leku-une-egoera]
- katafora [hau: orain esango dudana]

Anaforetarako, beste bi graduak baliatzen dira:

- hirugarren gradua: edonolako erreferentea (*hark harritu ninduen/nau*)
- bigarren gradua; enuntziatua erreferente, bereziki (*horrek harritu nau/ninduen*)

Badira, hala ere, erabilera lerratu batzuk gauzak gutxi-asko nahasten dituztenak, eta, zentzu horretan, gomendagarritzat jotzen ez ditugunez, *hauzaleria* (gordina-go, *hautismo*) etiketa ipini diegunak.

Nabarmenena, eta aski zabaldua, hirugarren gradutik lehen gradura justifikaziorik gabe jauzte da, honelakoetan:

Mezua zuzendariari iritsi zaio, eta hark/***honek** [zuzendariak] irakurri (egin) du.

Bi erreferenteren arteko jokoa dugunean ere, ez da gomendagarri lehen gradura jotzea:

Idazkariak zuzendariari bidali zion paketea, eta hark/***honek** [zuzendariak] itzuli egin zion.

Mutikoaren eta neskatoaren artean aukeratu behar bazen, garbi zegoen neskatoa mutikoa [??**hau hura**] baino begikoagoa zuela.

Enuntziatuak biltzeko espezializatuta dago, ikusi dugunez, bigarren graduakoa, baina ez da beti aukera bakarra; testuak berak marka ditzake pertsona/espazio/denbora koordenatu jakin batzuk, beste graduetakoa aldatzeko bidea emango dutenak⁴:

⁴ Literaturan, narrazioa gertakariekin batera doala irudika dezake testuak: *Orain hementxe nago, Erroman.*

- esaten ari naizen hori/hau
- esan duzun hori
- esan zuen hori/hura

Erlatibozko perpausek, hor, egoeraren parametro batzuk zehazten dituzte, eta, hala deixi arrunteko hiru graduak (*hau/hori/hura*) gainezar dakizkioke enuntziatu-anafora soilari ([*esandako*] *hori*).

Zaindu beharreko kontu ia-ia bakarra, bada, *hural*/***hau** soilen lerratze horretan ez erortzea da. Orokorrago: ez erabiltzea lehen graduakozko izenordain erakusleak anafora-funtzioan. Hori, jakina, paradigma guztian:

Paris utzi, eta Erromara joan zen gero; han/***hemen** [Erroman], zazpi urte egin zituen.

Errieta eman dio haurrari. Ni, hori/***hau** ikusita, ezin izan naiz isilik egon.

Ez dirudi hain zaila: aski da ohartzea *hemen* ez dela *han*, eta *hau* ez dela ez *hura* eta ez *hori*. ■

Kasu horretan (eta egoera antzeztuetan), aipatzen den egoeran fisikoki hantxe bageunde bezala erabiltzen dira erakusleak.

Pentsio sistema hobetuko du erreformak?

NEREA PIKABEA
KAZETARIA



Espainiako gobernuak onartu du horrenbeste zeresan eman duen pentsioen erreformaren inguruko aurreproiektua. Akordioa gobernuak, patronalak eta CCOO zein UGT sindikatuek sinatu dute. Horren arabera, 65 urtetik 67ra atzeratu dute erretiro adina, baina 38 urte eta erdi kotizatzen dituzten langileak 65 urterekin erretiratu ahal izango dira Hego Euskal Herrian. Ekainean jasoko du onespina Kongresuan eta 2013an sartuko da indarrean. Batzuek salatzen dute erreformak eskubideak murriztu dituela. Beste batzuek, aldiz, akordioa arrazoizkoa eta positiboa izan dela uste dute. Hainbaten iritziak jaso nahi izan ditugu hurrengo lerroetan.



MIREN ETXEZARRETA,
Bartzelonako Unibertsitateko Ekonomia Aplikatuko katedradun emeritua:

Etorkizuneko pobrezia programatzen ari dira erreforma horrekin

Egungo pentsio publikoen sistema bideragarria da populazioaren bilakaera kontuan hartuz gero? Ala amaiera data ezarrita dauka?

Sistema bideragarria da. Erreformatan egin behar dira, baina ez orain egiten ari diren moduko erreformatan. Zorionez, gehiago biziko gara eta hori ona da, baina badirudi orain ez dutela balio urte askoan lan egin duten "zaharrek". Jarduneko pertsonarik ez egotea edo langabezia handia izatea ez da pentsioen arazo bat, lan merkatuarena baizik. Gainera, pentsio horiek Estatuak duen beste diru batekin ordain litezke. Gauza asko ordaintzen dira guztion ahaleginarekin: esate baterako, Armada. Errenta banaketaren kontua da. Espainia herrialde aberatsa da duela 40 urteko egoerarekin alderatzen badugu. Dirua badago. Hortaz, honako hau litzateke galdera: "Non dago diru hori?".

Erreformatan ezagutzen dugun ongizate estatuaren amaiera dakar ala langileak

beste filosofia bat izan behar du hemendik aurrera?

Pentsio sistema erreformatzeko egin den proposamenak gogor erasotzen du ongizatearen estatua. Ongizatearen estatua murrizteko ahalegina dago. Ez dirurik ez dagoelako; dirua beste gauza batzuetan gastatzeko nahi dutelako baizik.

Erreforma egungo krisitik ateratzeko giltzarria da? Ala beranduagorako utzi beharrekoa?

Inondik inora ere ez. Erreformatarekin zerbait konponduko balitz, 20 urte barru hasiko ginateke emaitzak ikusten. Etorkizuneko pobrezia programatzen ari dira erreforma horrekin. Pentsioak murriztu egingo dira herritar gehienentzat. Krisia egon arren, Gizarte Segurantzak soberakina du oraindik. Krisiaren gaiaz baliatzen ari dira herritarrak izutzeko.

Pentsio pribatuak finantza interesek bultzatutako tresnak dira?

Bai, erabat ados nago. Pentsio pribatuak ez dute inolako konponbiderik ekarriko. Garestiak dira, kudeaketa komisioa kobratzen baitizute. Arrisku handikoak dira, burtsan inbertituta baitaude. Eta diru asko batu behar da gero pentsio on bat kobratu ahal izateko. Ekonomialari batzuek diote pentsio pribatuak iruzurra direla. Pentsio pribatuen errentagarritasuna oso txikia da.

Erresuma Batuko edota Alemaniako erreformatan eredugarriak dira Hego Euskal Herrirako?

Finantza kapitalarentzat jarraibidea izan daiteke, baina ez estatu batentzat. Ingalaterran pentsio publikoak gutxieneko hutsaletan daude. Herrialde guztietan pentsioak murrizten ari dira. Beraz, lehendabizi pentsio horiei eusteko borroka egin behar da. Publikoaren ildotik joan behar dute irtenbideek. Lan merkatua ere hobetu egin behar da, lanpostuak sortu behar dira. Eta erreforma fiskala egin. Horrekin iristen ez denean,

zergen bidez ordain dadila. Dirurik ez dagoela esatea gezur hutsa da. Danimarkan, esate baterako, zergekin ordaintzen dira pentsioak. Pentsio publikoak defendatzeko borrokatu behar da. Krisia egongo balitz ere, ez da berehalakoa, beraz, hartu diren erabakiak atzeratu daitezke eta ez krisiaren uneaz baliatu. Pentsio pribatuak baztertu egin behar dira. Inbertitu behar badugu, egin dezagun zor publikoan edo zuzenean burtsan. Finantza erakundeak eta estatua ari dira pribatuetara bultzatzen. Pentsio publikoak defendatu behar ditugu. Ez dugu ahaztu behar pentsio sistema belaunaldietako borroka eta ahaleginarekin irabazi dela. Ezin dugu pikutara bidali aurreko belaunaldiek guretzako irabazi zuten guztia. ●





JOSE MANUEL FARTO,
Gasteizko alkatearen ekonomia aholkularia eta ekonomian aditua:

Borondatezko pizgarrien bidez atzeratu behar da erretiro adina

Egungo pentsio publikoen sistema bideragarria da populazioaren bilakaera kontuan hartuz gero? Ala amaiera-data ezarrita dauka?

Sistema horrek, giza eraikuntza guztiek bezala, eboluzio bat izan behar du, kasu honetan hainbat norabidetan. Diru-

sarreraren arabera, dena Gizarte Segurantzaren bidez ez ordaintzea komeniko litzateke, Estatuko aurrekontuen bidez baizik. Horrez gain, uste dut, kapitalizazioa babesteko sistema pribatuak zerga bidez sustatu behar direla. Bestalde, zentzuzkoa da erretiro adina atzeratzea baina borondatezko pizgarrien bidez, ez legez behartuta. Hala ere, ulertzen dut aurretiko erretirarako legezko muga bat jarri beharra dagoela.

Erreformatik ezagutzen dugun ongizate estatuaren amaiera dakar ala langileak beste filosofia bat izan behar du hementik aurrera?

Erreforma erabat beharrezkoa da gizarte eredu arrakastatsu bat zaintzeko eta hobetzeko. Hortaz, uste dut puztu egin dela erreforma horrek izango lukeen eragin sistemikoa. Pentsio sistema mendealdeko gizarte- eta ekonomia-ereduaren arrakasta sozial eta ekonomikorik handiena da; egoera ekonomiko eta demografiko berrietara egokitzeko ahalegina besterik ez da.

Erreforma egungo krisitik ateratzeko giltzarria da? Ala beranduagorako utzi beharrekoa?

Frogatzeko moduko kausa efektu esanguratsurik ez dago erreformaren eta krisiaren artean. Beharrezko erreformarik

egiten ez bada, pentsio sistema ez da erabilgarria izango eta ez luke izango espero den eragin baikorrik. Gaur egungo erretiratuek soslai desberdinak dituzte duela 30 urtekoekin alderatuta, eta beraz, beharizan eta baliabide desberdinak behar dituzte. Ez dugu ahaztu behar pentsio sistema erretirodunen babes sistemaren atal garrantzitsuenetariko bat dela, baina ez bakarria (osasungintza, kultura, kirola, aisialdia, hirietako hornikuntza, etab.). Bestalde, lan mundutik erretiratu egoteak ez du esan nahi sozialki edo ikuspegi produktibo batetik hala dagoenik.

Pentsio pribatuak finantza interesek bultzatutako tresnak dira?

Bai, noski, eta baita elikadura, energia, botikak, komunikabideak eta Estatua bera ere. Garrantzitsua da finantza interesak, giza interesak edo interes politikoak gardenak eta agerikoak izatea, eta horien gainean eztabaidatu ahal izatea eta ondoren prozedura demokratikoen bidez erabaki ahal izatea. Finantza interes guztiak ez dira berez txarrak, ezta giza interes guztiak ere sozialki edo ekonomikoki bideragarriak, zoritxarrez.

Erresuma Batuko edota Alemaniako erreformatik ereduagarriak dira Hego Euskal Herrirako?

Erreforma egiten duen azkenak kontuan izan behar ditu aurrekoen berrikuntzak eta esperientzia; baina norberak bere eredu egin behar du beti, norbere gizarte eta lurralde ekonomiaren ereduaren ñabardurak jasoko dituena. Esate baterako, uste dut Euskadin Espainiaren aldean, arrakasta izan dezakeela kapitalizazio eredu misto solidario batek. Gainera, zuzeneko edo zeharkako kontribuzioek pentsio sistemari lagunduko liokete aurrekontuen bidez eta gure errenta eta produktibitate diferentzialaren bidez. Gure lurralde produktio eredu produktibo berezituak ere ahalbidetzen eta eskatzen duela uste dut. ●



IGNACIO ZUBIRI,
Euskal Herriko Unibertsitateko Ogasun
Publikoko katedraduna:

Pentsioak asko murriztea erabaki politikoa izan da, ez ekonomikoa

Egungo pentsio publikoen sistema bideragarria da populazioaren bilakaera kontuan hartuz gero? Ala amaiera data ezarrita dauka?

Gaur egungo sistema (erreformaren aurretik) finantza ikuspegitik bideragarria da, pentsioen zati bat Estatuako sarre-
ra orokorretatik ordaintzea onartzen bada, betiere. Batzordearen kalkuluen arabera, momenturik okerreanean ere (2050ean) pentsioak Espainian (erreformarik gabe) Barne Produktu Gordinaren (BPG) %15,5 kostatuko lirateke. Sistemari bere horretan eutsi zekiokoen, edota modu justuago batean erreformatu finantza arazo handirik gabe (kostu guztia langileen gain utzi gabe). Pentsioak asko murriztea erabaki politikoa izan da batez ere, ez ekonomikoa (nahiz eta erabaki ekonomikoa balitz bezala aurkeztu den).

Erreformatik ezagutzen dugun ongizatearen estatuaren amaiera dakar ala langileek beste filosofia bat izan behar du hemendik aurrera?

Erreformatik asko murriztuko ditu pentsioak (askorentzat %20 edo gehiago). Benetako arazoa honakoa da: murrizketa hori ez da nahikoa sistema etorkizunean bermatzeko eta murrizketa gehiago egongo dira (baliteke beste horrenbeste murriztea). Gainera, ongizatearen estatuan ordainketa bidezko mekanismoak sartzea iradokitzen ari dira (kopagoa osasungintzan). Langileek ez badute neurririk hartzen murrizketa horiek saihesteko euren sindikatuen bitartez (eta botoekin), ongizatearen estatua gutxitu egin daiteke.

Erreforma egungo krisitik ateratzeko giltzarria da? Ala beranduagorako utzi beharrekoa?

Hartutako neurriek ez dute eragin nabarmenik izango gastuan urte askoan. Berez, Erreforma Legearen aurreproiektuko memoria ekonomikoak berak erakusten du 2030a baino lehenago ez dela ia batere finantza eraginik egongo. Horregatik, zentzugabea da erreforma krisitik ateratzearekin lotzea.

Pentsio pribatuak finantza interesek bultzatutako tresnak dira?

Euskal Herrian eta Espainiako gainerako tokietan eskaintzen diren pentsio pribatu motak (ekarpen definituko pentsio-plan indibidualak) askoz ere eztabaidagarriagoak dira. Euren errentagarritasuna txikia da eta kudeaketa kostuak handiak (batez ere, biziarteko errentan bilakatzen badira). Gainera, langileak

arriko kolektibo eta indibidual handiei aurre egin behar die: kolektiboak (ekonomia gaizki joan eta pentsio plan guztiak ere gaizki joan) eta indibidualak (ekonomia ongi joan, baina bere plana gaizki joan). Gainera, prima oso handiak ordaindu ezean, plan pribatuek publikoek baino estaldura txikiagoa dute (ez dago alarguntasun edo gaixotasun estaldurarik, etab.). Gaur egungo plan pribatuek mesede gehiago egiten diete kudeatzaileei langileei baino. Berez, pizgarri fiskalengatik ez balitz, inork ez litzuke erosiko.

Erresuma Batuko edota Alemaniako erreformatik ereduagarriak dira Hego Euskal Herrirako?

Ez, bi herrialde horietan jokabide politikoaren ikuspegi liberala ezartzen ari baita eta, gainera, euren errenta maila handiagoa da. Errenta maila handiagoa izateak ez du gizarte gatazka handirik sortzen prestazio publikoak murrizten direnean; aurrezki pribatuarekin konpentsatu daitezke. Hala ere, ez herrialde batean eta ez bestean, ez dute ezarri pentsioak kotizazioekin bakarrik ordaintzeko betebeharririk. Euskal Herrian, seguru asko, berdintasuna oinarri duen ikusmolde soziala sustraituago dago, eta, gainera, herritar gehienek garestiegia den etxebizitza bat (beste herrialde batzuekin alderatuta) ordaintzeko erabiltzen dute aurrezten duten apurra. Horregatik, hobe litzateke berdintasuna oinarri duten beste herrialdeei erreparatzea. ■

POSPOSIZIOA VERSUS PREPOSIZIOA

IÑAKI VILLOSLADA

DONOSTIA OSPITALEKO
KOMUNIKAZIO UNITATEA

Badira euskararen bizi-iraupenaren gakoa preposiziorako aldaketa egitean dakusatenak, eta, oro har, ikuspegi minoritarioa den arren, Euskaltzaindiak, hitz baten kasuan bederen, arrazoia eman diela ematen du. Hiztegi Batuan *versus* hitza azaltzen da. Bitxia da agerpen hori kontuan harturik latineko hitza (*verteretik* omen dator) ez dela azaltzen gure auzo-hizkuntzen hiztegietan. Hitza ez gatzelaniari ez frantsesari hartu bide ez badiegu, eta argi dagoenez kanpoko hitza dela, hirugarren bati mailegatu diogula ondorioztatu behar dugu.

Latinetik zuzenean mailegatzeko garaiak aspaldi pasatu zirenez –latineko *versus bertso* bihurtu zen gurean–, gure kultur ingurune berri xamarrean tituluan iradokitzen dugun muntako tipologia-aldaketa eragiteko moduko hizkuntza ingelesa bakarrik izan daiteke.

Bidea hori izan dela onartzen badugu, bakarrik geratzen zaigu jakitea zein den euskaraz eman nahi zaion zentzua ingelesean dituen guztietatik, mailegatu esanahi eta guzti mailegatuko genuelakoan. Euskaltzaindiak ez dizkigu gauzak erraz jarri, ez baitu hitzaren inguruko inolako azalpen edo pistorik eman, ez eta ere, sikiera, kategoria gramatikalaren inguruan. Sarasolak preposiziotzat hartzen du eta beste toki batzuetan adberbio gisa azaltzen da –izenburuan argi utzi dut zein den nire iritzia–. Hutsetik abiatu behar dugunez, prozedurarik onena ingeles hiztegiak kontsultatzea izango da, ikusteko zein esanahi eta erabilera mailegatu ahal dugun.

Ingeleseko hiztegien arabera bi adiera nagusi ditu hitzak, kontrakotasuna edo areriotasuna adieraztea, lehenengoa; eta bi aukeren arteko konparazioa adieraztea, bigarrena. Aurkakotasunaren adieran, erabilera murrizta dauka ingelesean bertan, auzitegi-mailako testueterako zein kirolari buruzkoetara murrizten baita. Eta gure sistema juridikoak ez duenez zerikusirik anglosaxoniarrarekin, auzitegi-mailako erabilerak ez du zentzurik euskaraz –ingelesezko itzulpenetan izan ezik, AEBetako, GBko eta nazioarteko zenbait epaimahairen sententzien eta auzilarien berri emateko (eta, noski, nazionalitate horietako film-bikoizketan: *Kramer vs Kramer* –Kramer eta Kramer irakurrita– zuzenago litzateke Kramer Kramerren kontra baino)–.

Kirolean, boxeoan izan ezik agian –maileguzko hitz eta irudi asko eman baitizkigu kirol horrek–, “Reala versus Athletic”, edo “Barriola versus Retegi Bi” modukoek ibilbide luzerik ez dakit

izango duten inoiz euskara zaindu batean.

Beraz, bigarren adierarekin gelditu beharko dugu –konparazioarena–, hainbestean, mailegatutako hitza salbatu nahi badugu. Eta, kasu honetan, topatu dezakegu erabilera arrazoizkoago eta egokiagoa, bi jakintza-arlotan, bederen, medikuntzan eta hizkuntzalaritzan –eta ekonomian beharbada–. Medikuntzan sarri egiten dira medikamentuen, prozeduren eta tratamenduen arteko konparazioak eta argitaratzen dira emaitzak. Horrelakoetan, tituluan jarri ohi dira konparaburuak: normalean arrakasta gehiago duena lehenengo termino gisa jarrita eta konparazioan galtzaile atera dena bigarren termino gisa. Eta hori adierazteko, *versus* preposizioak ederki funtzionatzen du –saihesten da horrela titulu luze eta ulertzeko zailagoak direnak, helburua jakitea baita bi medikamenturen, prozeduren edo tratamenduren artean zein atera den hobeto konparaziotik–. Beste erabileraz, hizkuntzalaritzakoaz, tituluan etsenplua kokatu dudanez, ez noa gehiago luzatzera.

Hemen esandako guztia aplikatuz irakurlearen esku uzten dut: “*Politics isn’t about left versus right; it’s about top versus bottom*” esaldia euskarara itzultzeko lana. Ez da erraza. Argi dagoena da ingelesak beretzat hartzen dituela nahi beste bitarteko hizkuntzetatik eta bere egiten dituela, hitzaren erabilera aldatuz arazorik gabe. Eta hizkuntza latinoak, bitartean, latina ingelesaren bidez hartzearen dileman harrapatu daude. Guretzat dilema beste bat da: preposizioa bai, preposizioa ez. Bukatzeko esan, *versus* preposizioaren laburdura *vs* dela eta laburduren artean salbuespentzat jo izan dela euskaraz (punturik ez daramalako). Azalpena da laburdura ingelesetik zuzenean hartzen ari garela eta ingeleseko araua da hitzaren bukaerako letra erabiltzen denean laburduran, ez dela punturik jartzen. ■

ARABA HANDIA

FERMIN ETXEGOIEN

IDAZLEA

–Lanean ezin duzu irratia entzun!

–Estrategia bat da. Bezeroek ikusten baldin badute Euskadi Irratia entzuten ari garela, errazago animatuko dira euskaraz hitz egiten.

Kontxo, ez da gezurra, pentsatu zuen bulegoko arduradunak. Aspertuta zegoen bere menpeko batzuen trikimailuekin, bulegoko barne-araudia apurtzeko beti prest azaltzen zirenak, baina agian hura ez zen estrategia txarra, euskaldunek eskakizunak euskaraz egin zituzaten motibatuz. Gainera, arduradunak ondo gogoan zeukan *konpromisoa* hartu zutela, Aste Santuko oporrak ailegatu aurretik, bulegoan euskararen erabilera areagotzeko, baina zoritxarrez, bezeroei zegokienez ez zen momentuz gertatzen ari, eta aizu, agian irratia ez zen estrategia txarra izango.

–Tira... Euskadi Irratia daukazu jarrita?

–Bai jauna, egokiena iruditzen zait.

–Mmm... Bai, bada. Eta Herri Irratia ere jar al zenezake?

–Herri Irratia? Jauna, susmoa dut jada ez dela existitzen.

–Nola ezetz? Herri Irratia edota Onda Vasca... Ez al da gauza bera?

–Eee... Bai, bada... baina susmoa dut Onda Vascan euskara gutxi entzuten dela, aukeran gutxiegi.


Arduraduna arduraz konturatu zen zegoen atakaz; Onda Vasca begi hobez hartuko baitzen Aldundian Euskadi Irratia

baino, zeina arerioaren bozeramaile bilakaturik baitzegoen azken hauteskundeen ondorioz, eta hura pentsatzean bulegoko arduradunak bere gaineko arduradunak izan zituen gogoan, noski.

“Tira, *arerioen bozeramaile* izate hori ez da aplikagarria Euskadi Irratiaren kasuan”, lasaitu guran esan zion bere buruari arduradunak, Radio Euskadiren kasuan ez bezala, gaztelaniazko emisora argiki bilakatu baitzen arerioaren bozeramaile aspaldion, baina Euskadi Irratian gauzak ez ziren horrenbeste aldatu, eta gainera, bulegoko arduradunak biziki estimatzen zuen Euskadi Irratiko zuzendaritzan jarri berri zuten poeta, aldi berean funtzionario zein poesiazale baitzen bulegoko arduraduna, PESSOAK erakutsitako bideari jarraiki.

Aurrera, beraz, euskarazko irratia piztuta izatearen estrategiarekin. “Ea jendea animatzen zaigun kontsultak euskaraz egiten, ogasun kontuak berez eta non-nahi arrotzak izan arren”, onartu zuen bere kolkorako bulegoko arduradunak. Eta zer esanik ez, berak ongi zekien moduan, Arabako Lurralde Historikoan jaio diren euskaldunentzat, aita Etxaguen auzokoa baitzuen eta ama Olaetan jaioa, biak aramaiotarrak beraz, nahiz Orixol mendi-mugaren alde banatan jaio bata zein bestea, Kantaurira begira aita eta Mediterraniora begira ama, nahiz –esan bezala– biak aramaixotar zein arabar izan, eta Gasteizen jaiotako bulegoko arduraduna beti liluratzen zen gurasoen jatorri apartaz, baina halere, oso zaila izaten zitzaion bere lilura beste inorekin partekatzea, bai bulegoan bai hirian bai lurralde historikoan.

Euskadi Irratia bulegoan piztuta izatea proposatu zion menpeko bulegari gipuzkoar gasteizartua, adibidez; zer zekien hark arabartasunaz? Gutxi, edo ezer ez. Imajina al zezakeen menpeko bulegari gipuzkoar gasteizartuak, zein beste edozein euskaldun ez arabarrek, noraino ailegatu den Araba Handia? Ez, ezin



imajina zezakeen ia Barakaldoraino (Kadagua ibaiaren eskuin ertzetik), ia Logroñoraino (Oion herriko lur-eremuetan), ia Arrasate, Lizarra edota Medina de Pomarerraino ailegatu den Araba Handia: paisaia, historia zein jende desberdinen arragoa paregabe bezain ezezaguna, zazpi lurraldeetatik ezezagunena, arabarrak eurak ere ez baitira kontziente euren lurraldearen handitasunaz!

Euskadi Irratian ere, ba al zekiten zer bait horretaz guztiaz?

Bulegoko arduraduna konturatu zen bakarrik zegoela munduan. Euskalduna zelako eta euskarari konpromisoa erakusten ziolako, baina era berean *pan-arabarra* zen (arabartasun molde guztien defendatzaile), gainera poeta zein funtzionarioa...

Eta bat-batean, ulertu zuen bere “normala ez izate” hura.

Bere eskuetatik pasatzen ziren, eta bakarrik bere eskuetatik –Ogasun Sailaren eraikin nagusian (Eduardo Dato kalea, 11)– arabar guzti-guztien zerga kontu guzti-guztiak.

“Begira –esan zien bulegoko arduradunak bere menpekoei–, gure lurraldearen aniztasuna behar bezala adierazten duen irratirik aurkitu arte, hobe dugu isilean jarraitzea”.

(“Hala Bedi”, erantzun zion menpeko bulegari gipuzkoar gasteizartuak, besteak beste, Kike Amonarriz soziolinguistaren jarraitzaile amorratua zenak). ■

Ariketak 72

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

I. Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* aintzat hartuz, aukeratu zuzena edo egokiena eta ✓ ikurraz markatu:

1. Muga aldeko _____ an tiroak sutu eta berehala hasi zen jendea Irundik alde egiten.
 fronte / frente
2. Aitortzen dut _____ ok ezin aspergarriagoak garela komunikabideen aurrean: ez gatzik eta ez piperrik.
 futbolari / futbolista
3. Ahalegintzen denak _____ zoragarriak eskuratzen ditu, eta zuhurtzian oinarritzen denak sustrai iraunkorrak.
 fruitu / frutu
4. Zerbitzariak bi plater ekarri zituen _____ an.
 fuente / erretilu
5. _____ horren adierazgarri dira lehen garaietako lekukoak testigantzak.
 Tirabira / Frikzio
6. Kargaren zati hutsal bat Pasaian utzi eta depositoa _____ z betetzeko helburuz sartu ziren badiara, bokalea igaro bezain pronto otsoaren eztarrian behera labaintzen zirela susmatu gabe.
 fuel-oil / fuel olio
7. Gero _____ ak su hartu zuen eta han nonbait erori zen, sororen batean, baina hegal hark, _____ tik askatzean, torloju eta azkoin eskukada batzuk erauzi zituen, plazara erori eta emakume batzuei burua mailatu zietenak.
 fuselaje / fuselai
 fuselaia / fuselaje
8. Anaia hura bere _____ lagunarekin ahuspez jarri zen otoitzean eta han zeuden guztiak ere otoitz egitera gonbidatu zituen.
 fraile / fraide
9. Ez dakit zenbat denboraz ibili nintzen alderrai, basoan galduta, ikusten ez nituen _____ ei tiroka nintzatela oihuka erregutuz.
 frankotirataile / frankotiradore
10. _____ batez estaltzen du ilea, bere herrian emakumeek ohi duten gisan.
 Foular / Fular

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde Autonomiaduna



2. Saia zaituz aurre egiten “Erakusleak testuen jostun” artikuluko egileak aipatzen duen *hautismoari*. Horretarako, zuzen itzazu lehen hiru esaldiak eta bete beste hiruretako hutsuneak erakusle egokienarekin.

1. 2009/369 EE Erregelamendua ontzi guztiei aplikatuko zaie, betiere Estatu kide batenak badira edo honek ustiatzen baditu eta merkataritza-arlokoak ez diren gobernuzko zerbitzuetan soilik erabiltzen badira.
2. Besteak beste, Inbentario Orokorra sortzen da eta Administrazio bakoitzak hau kontrolatzeko funtsezko alderdiak arautu.
3. Erregelamenduaren VII. tituluaren sistemaren izaera ezartzen da, alegia, hau osatzen duten erakundearen koordinazioa, lankidetzak, oreka eta hobekuntza lortzeko egitura.

•••

4. Horrez gain, Administrazioak, administrazioak berak aitorturiko erakunde batek edo, _____ eskatuta, Hitzarmena kontratatatu duen beste erakunde batek luzatuko dio betetze-dokumentua konpainia bakoitzari.
5. Betetze-dokumentuaren balioetasuna administrazioaren, _____ aitorturiko erakunde baten edo beste erakunde kontratatzaile baten mende egongo da.
6. Sistema osatzen duten gainerako eragileek departamentu eskudunaren aldeko txostena eskatuko dute. Aldekotzat izan dela ulertuko da baldin eta bi hilabete iragaten badira _____ jaso gabe.

- | | | |
|-------------|--------------|------------|
| 4. a) honek | 5. a) horrek | 6. a) hura |
| b) horrek | b) honek | b) hori |
| c) hark | c) hark | c) hau |

3. “Zure iturri freskora nator” artikulua egileak *ezen* partikula aldarrikatzen du administrazioari testuetako perpaus osagarri konplexuen ulergarritasuna hobetzeko. Saia zaituz honako esaldiak moldatzen aditza aurreratuz (letra lodiz markatuta) eta *ezen* partikula erabiliz.

1. Kontu honi dagokionez, lehen-lehenik, eta espedientetik ondorioztatzen denaren arabera, Ikuskaritzak 2009ko urriaren 27an atzera abiatzen dituen Boliboli S.A.ri buruzko ikuskatze jarduerak –hauetatik etorri dira, ondoren, orain aurkaratutako erabakiak–, erakunde hori deseginda eta likidatuta zegoela **aipatu behar dugu**, hau da, dagoeneko ez zuen nortasun juridikorik, ez baitzen jada existitzen.
2. Ediktuetan lizitatzaile orok onartzen zuela, zegoen titulazioa nahikoa zela eta auzi-jartzailearen kredituaren aurreko zama eta karga guztiek bere horretan iraungo zutela, eta beraiengandik eratorritako erantzukizunpean subrogatuta geratzen zirela errematea euren alde esleitzen bazen **adierazi zen**.
3. Bestalde, demandari erantzuteko 21. eta 22. agiri gisa aurkeztutako erregistro-ziurtagirian deskribatzen dela kreditu hura **esan behar da**.

4. **Gaztelerazko esaldi hauetan administrazio hizkeran sarritan erabiltzen diren formula eta esapide batzuk nabarmendu ditugu. Parentesi artean formula hauen euskarazko ordain desegokia jarri dugu. Eman itzazu euskara jatorrean, baina kontuan izan hainbat aukera egon daitekeela.**

1. *Al objeto de (l-(r)en helburuarekin)*

Al objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el párrafo anterior, las administraciones públicas vascas han de elaborar y ejecutar planes de formación en materia de igualdad de mujeres y hombres para el personal a su servicio.

2. *A causa de (l-(r)en kausaz)*

A causa de la explosión fortuita de una bombona de butano, cierto inmueble sufre gravísimos daños que obligan al Ayuntamiento a declararlo en situación de ruina inminente.

3. *A consecuencia de (l-(r)en ondorioz)*

El Colegio Vasco de la Abogacía garantiza la asistencia jurídica gratuita para los casos que se deriven **a consecuencia de** violencia doméstica o agresiones sexuales.

4. *A efectos de (l-(r)en ondorioetarako)*

Será indispensable para la validez de su voto que conste claramente en el sobre mencionado un matasellos u otra inscripción oficial con la fecha, **a efectos de** verificar el cumplimiento del plazo indicado.

5. *En base a (l-n oinarrituz)*

Los recipientes deberán estar etiquetados de forma clara, legible e indeleble y **en base a** las instrucciones señaladas.

5. **Zein hitz dagokio definizio bakoitzari?**

- | | |
|--|----------------|
| 1. Idazteko modua; nork bere burua idatziz adierazteko era. | a. pizgarri |
| 2. Bi gorputzek, bata edota biak higitzen ari direla, elkarren kontra jotzean datzan ekintza eta ondorioa. | b. eraso |
| 3. Pertsona edo gauza batez gizartean dabilen iritzia; ospea. | c. sona |
| 4. Egitura jakin baten osagai garrantzizkoena. | d. bideragarri |
| 5. Aurrera eraman edo burutu daitekeena. | e. iruzur |
| 6. Norbaiten aurka, hiltzeko edo kalte egiteko asmoz, oldartu eta indarkeriaz ekin. | f. giltzarri |
| 7. Zerbaiten balioa, kantitatea, kopurua, etab. txikitu edo gutxitu. | g. idaztankera |
| 8. Onura edo probetxua lortzeko asmoz eginiko engainu edo azpikeria. | h. ñabardura |
| 9. Zerbait egin edo nahi izatera bultzatzen duen estimulua. | i. talka |
| 10. Aski antzeko diren bi gauzaren artean dagoen alde txikia. | j. murriztu |

- I.
1. fronte
 2. futbolaria
 3. fruitu
 4. erretilu
 5. Tirabira
 6. fuel olio
 7. fuselaje/fuselaje
 8. fraide
 9. frankotiratzaile
 10. Fular
- 2.
1. 2009/369 EE Erregelamendua ontzi guztiei aplikatuko zaie, betiere Estatu kide batenak badira edo **hark** ustiutzen baditu eta merkataritza-arlokoak ez diren gobernuzko zerbitzuetan soilik erabiltzen badira.
 2. Besteak beste, Inbentario Orokorra sortzen da eta Administrazio bakoitzak **hura** kontrolatzeko funtsezko alderdiak arautu.
 3. Erregelamenduaren VII. tituluaren sistemaren izaera ezartzen da, alegia, **hura** osatzen duten erakunde-ko koordinazioa, lankidetzeta, oreka eta hobekuntza lortzeko egitura.
 4. c
 5. c
 6. a
- 3.
1. Kontu honi dagokionez, **aipatu behar dugu ezen**, lehen-lehenik, eta espedientetik ondorioztatzen denaren arabera, Ikuskaritzak 2009ko urriaren 27an atzera abiatzen dituenean Boliboli S.A.ri buruzko ikuskaritza jarduerak –hautetatik etorri dira, ondoren, orain aurkaratutako erabakiak–, erakunde hori deseginda eta likidatuta zegoela, hau da, dagoeneko ez zuen nortasun juridikorik, ez baitzen jada existitzen.
 2. Ediktuetan **adierazi zen** lizitatzailerok onartzen zuela **ezen**, zegoen titulazioa nahikoa zela eta auzi-jartzailearen kredituaren aurreko zama eta karga guztiek bere horretan iraungo zutela, eta beraien-gandik eratorritako erantzukizunpean subrogatuta geratzen zirela errematea euren alde esleitzen bazen.
 3. Bestalde, **esan behar da ezen**, demandari erantzuteko 21. eta 22. agiri gisa aurkeztutako erregistro-ziurtagirian deskribatzen dela kreditu hura.
- 4.
1. Aurreko paragrafoan ezarritakoa **betetzeko**, euskal herri-administrazioek beren langileak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan trebatzeko planak gertatu eta egikaritu behar dituzte.
 2. Butano-bonbona bat ustekabea lehertu da eta eraikin batek kalte oso larriak jasan ditu; **hori dela eta**, Udalak hur-hurreko aurri-egoeran (erortzean) dagoela adierazi behar du.
 3. EAEko Abokatuen Elkargoak doako laguntza juridikoa bermatzen du etxeko indarkeria edo sexu-erasoak **direla eta** egiten diren epaiketetan.
 4. Zure botoa balioduna izan dadin, ezinbestekoa da gutun-azal horretan argi agertzea zigilu-marka edo data erakusten duen bestelako inskripzio ofizialen bat, aipatutako epea bete dela egiaztatu ahal izateko.
 5. Ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du eta adierazitako jarraibideak **kontuan hartuko** ditu.
- 5.
1. g
 2. i
 3. c
 4. f
 5. d
 6. b
 7. j
 8. e
 9. a
 10. h

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Erakunde Autonomiaduna



ESPAINIA KANTU BATEN BELDUR

Gernikako Arbola kantatzeagatik erbesterratu zuten Iparragirre

PAKO ARISTI

IDAZLEA

Zein indar eduki dezake kantu soil batek? Gaur, milaka edo milioika kantu gure eskura daudenean, egun osoa musika entzuten igarotzen dugunean, tabernetan, dentistarenean, igogailuan... nola ulertu estatu espainola kantu baten beldur izatea, bere egilea erbestertzeraino?

Halere, gertatu zen, aspaldi bada ere. Urkiolan gaude, 1854. urtean. Festa eguna da, erromeria, eta 6.000 lagun inguru daude mendian. Jose Mari Iparragirrek gitarra hartu du eta *Gernikako Arbola* deitzen den abesti berri bat kantatzeari ekin dio. Megafoniarik ez dago, baina Iparragirreren ahotsa ozena da, indartsua, eta mendia isildu egin da European zehar kantari ibili ondoren herrira itzuli den bardoa entzuteko.

Gernikako Arbola, da bedeinkatua, euskaldunen artean guztiz maitatua...

Lehen akordeak, lehen hitzak entzun orduko baserritar askok txapela kendu dute, eskuetan hartuz, errespetu modura. Begietan malkoa ez du urruti jende askok, hunkituta. Kantu hark badu jende hari euren iraganarekin, lurrarekin, Euskal Herri maitearekin lotura sakon bat sentiarazteko dohaina. Lehen Gerra Karlistaren ondoren, Foruen zatirik handiena galdua zen, eta geratzen zena ere galzorian ikusten zuen herriak. Kezka horri erantzun nahi izan zion Iparragirrek kantua sortu zuenean, urte bete lehenago, Madrilgo San Luis kafetegian.

Eman ta zabal zazu munduan frutua, adoratzen zaitugu arbola santua.

Jendea belaunikatzen hasi da. Batzuek ezagutzen dute kantua, Iparragirrek aurretik Bilbon abestu baitu, Plaza Berrian zeuden La Pasteleria eta Café de

la Iberia kafetegietan. Abestiak zortzi estrofa dauzka, gaur bakarra kantatzen badugu ere, eta doinu bera zortzi aldiz errepikatzea aski zen jende harentzat kantua buruz ikasteko. Izan ere, gaur nahi adina aldiz entzun dezakegu kantu bat, baina garai hartan ez; grabagailurik gabe, doinuak zuzenean entzunda soilik ikas zitezkeen. Jendeak belarria zorroztuagoa zeukala esan daiteke, memoria hobea, bertso sail luzeak buruz ikasteraino, gaur gutako inork lortu ezingo lukeena.

Kantua amaitu duenean sekulako txalo zaparradak egin du eztanda Urkiola gainean. Gero ere, egun osoan zehar, jendeak elkarri kantatuko dio abestia, ongi ikasia gera dadin. Bakoitzak bere etxera eramango du kantua, etxekoek ere jakin dezaten. Euskal Herriaren Foruak, nortasuna eta eskubideak biltzen dituen kantua bazter guztietara zabalduko da.

Urkiolan badago, ordea, hura ikusita oso pozik ez dabilen gizon bat: Pedro Egaña, Arabako diputatua Madrilgo Kongresuan. Ongi daki kantu batek nola berotzen duen jendearen bihotza; entzun du Frantzian ere *Marsellesa* kantatuz jendea aztoratzen zebilen Iparragirre kanporatua izan dela Napoleon III.aren aginduz.

Gainera, Iparragirre ez da arlote bat: dandy baten moduan janzten da, espainiera, ingelesa, frantsesa eta italiara ere badakizki; Caroline Duprez opera soprano ospetsuaren maitalea izan omen da Parisen... Gaur *karisma* deituko geniokeen horixe bera zeukan, soberan gainera.

Egoera honen berri eman zuen Pedro Egaña Madrilgo Kongresuan, jendeasaldatzaile arriskutsu baten aurrean zeudela azpimarratuz, Espainiaren etsai hura urrun bidali behar zela. Eta horrela onartu zuen Kongresuak: Iparragirre erbestertatua izango zen.

1855ean guardia zibilak bere bila joan ziren, eta deserriko bidea hartu behar izan zuen Jose Mari Iparragirrek. Delitua: kantu bat kantatzea! ■

GOOGLE DOCS, DOKUMENTUAK EDONONDIK PARTEKATUZ

GORKA J. PALAZIO

EHUKO KATEDRADUNA

Web 2.0 ingurumarian, beharrezkoa da herritarrek ulertzea aplikazioak Interneten daudela eta bertatik erabili ahal ditugula jendearekin datuak partekatuz, era pribatuan edo publikoki. Web 2.0 kontzeptuak irauli egin du informatika ulertzeko era. Aplikazioak, orain, Interneteko zerbitzu bezala ageri dira eta beraien artean elkarloturak dituzte txertagarriak direlako. Azken hau ulertzeko, pentsa dezagun zenbat diren aplikazioak, testu bat behin idatziz, automatikoki hainbat sistematan batera argitaratzeko aukera ematen dutenak. Horrez gain, pentsa dezagun edozein software mota egon daitekeela Interneteko zerbitzu bezala, ofimatikako aplikazioak barne. Hortaz, Interneteko konexioa edukita posiblea da testu prozesatzailea, kalkulu orrialdeak edo aurkezpenak kudeatzea. Microsoften suite ofimatikoa, Open Office, Libre Office, Koffice, Gnome Office edo antzeko beste suite bat erabili ordez, ba al du abantailarik onlineko suite ofimatikoak? Galdera horri erantzunez, bistan da bi abantaila handi dituela Google Docs (1) bezalako suitea erabiltzeak: dokumentuak gure lankideekin ia denbora errealean editatzeko eta partekatze-

ko aukera ematen du, konexioa eskurgarri izanik edonondik editatzeko posibilitatearekin. Desabantaila nagusiak bi dira: tamalez, oraindik ez dago euskarazko interfazea, nahiz eta laster egotea espero den; eta pribatutasun handiena nahi badugu, onlineko sistema ez da erabat segurua. Bestalde, batzuek uste dutenaren kontra, dokumentuak galtzeko aukera gehiago dago lokalean gordetzen baditugu, online baino. Gainera, pentsa dezagun, online edukitzeaz gain, backup-ak ere eduki ahal ditugula lokaleko gure disko gogorrean datuak galtzeko arriskurik gabe. Backup prozesua Glidnet (2) edo Gdatacopier (3) sistemen bitartez egin daiteke.

Formakuntza profesionalean eta irakaskuntza arautuan gero eta gehiago erabiltzen dira Web 2.0 aplikazioak. Jane Hart irakasleak urtero egiten duen rankingean (4), irakaskuntzan gehien erabiltzen diren aplikazioen zerrendan hain zuzen ere, Google Docs hirugarren agertzen da 2010ekoan. Google enpresa handiaren sistema hori Writely eta Google Spreadsheets produktuen bidez gauzatu zen eta Wikipedian historia osoa irakur daiteke (5). Google Docs suitearen barruan

honako aplikazioak daude online gaudenean abiatzeko direnak.

- Testu dokumentuak
- Kalkulu orrialdeak
- Aurkezpenak
- Formularioak
- Marrazkiak

Googlek gigabyte bakarreko fitxategia biltzeko ematen digu doan, baina kontuan hartu behar da Google Docs formatuetan dauden fitxategiak muga horretatik kanpo daudela, erabiltzaileak igotako dokumentuak (.pdf, .doc, .png etab.) soilik kontuan hartzen baitira pisuari dagokionez. Hortaz, berehala konturatu gara, zinez, makina bat dokumentu bildu ahalko dugula bertan. Google Docs sistema erabiliz gero, hainbat gauza egin daitezke, suite normal batez egin ezin daitezkeenak edo egin ahal izanagatik, sekula otuko ez litzaizkigukeenak:

- Onlineko dokumentu berriak sortu edo gure disko gogorrean ditugun dokumentuak (.doc, .xls, .odt, .ods, .rtf, .csv, .ppt...) Google Docsera igo backup edo kopiak egitearren.
- Ohiko Microsoft Office suitearen estioak eta ezaugarriak aplikatu editatzeko orduan (letra lodia, azpimarrak, indentazioa, fondoko koloreen aldaketa, letra mota eta tamaina aldatu, eta abar).
- Lankideei gonbitea luzatu dokumentuetan parte har dezaten dokumentua bera editatuz, edo dokumentuak modu partekatuan bistaratuz.
- Dokumentuetan egoten diren aldaketa edo bertsioen gaineko informazioa jaso. Hortaz, lankide batek editatzeko orduan errakuntza asko egin badu, aukera dugu aurreko bertsiora bueltatzeko. Era horretan, dokumentuaren historiaz jabetu gaitzke eta aldaketak nork egin dituen ikusi eta Google Analyticsen hainbat datu eskuratu.

- Dokumentuak bildumen edo bilaketa sistemen bidez erraz askoan aurki daitezke.
- Txateatzeko leihatilak txertatu, aurkezpenak aberastuz.
- Dokumentuak webgune batean publikatu.

Adibide bat ipintzearen, demagun Administrazioako sail batek langileen etengabeko formakuntza premiak zein diren jakin nahi duela. Google Docsen, formulario berri bat sortuz, galderak jar daitezke eta online jarri, langileek galde-egia edonondik bete dezaten. Bistan da formularioa pribatua izango dela, egileak langileen posta elektronikoa jarri bidaliko dielako formularioa betetzeko gonbitea. Langileek erantzunak jarri eta automatikoki pasako dira kalkulu orrialde batera, non datuak ustiatuko diren. Soziologo eta ikerlarien lan nekeza, onlineko erreminta hauek erabiliz arin eta erraz egin daiteke “hodeiko” aplikazioen bidez.

2011ko otsailaren erdialdean, Googlek beste pauso handi bat eman du konpatibilitate handiagoa gauzatzeko asmoz, eta 12 formatu gehiago bere egin ditu Google Docs Viewer sistemarako. Viewer aplikazioak posta elektronikoz bidalitako dokumentuak ikusteko aukera ematen du. Eta hemendik aurrera, esaterako, Photoshop (.psd), Illustrator (.ai), Autodesk AutoCad (.dxf) edo Excelen azken bertsioaz egindako dokumentuak (.xlsx) erakusteko problemarik ez da egongo. Bistan da Google Chrome sistema eragileak osatzeko eta fintzeko urratsa izan dela, zazpi hazbetetik 11ra doazen pantailatan (tableten pantailak) onlineko aplikazioak baliatzea oso egokia eta ohikoa izan daitekeelako. Google Chrome sistema eragileak konpatibilitatea behar du jendea onlineko sistemaz fidatzeko. Horrexek sortuko du onlineko aplikazioak erabiltzeko eta fitxategiak hodeiko



zerbitzarian lagatzeko hautua. Viewer deritzon ikustzaileak hainbat formatu maneiatu behar ditu, erabiltzaileak esperientzia txarrik eduki ez dezan. Sistema Eragilea hodeian, onlineko zerbitzarietan alegia, dugunean paradigma aldatu beharra dago eta datuak biltzeko guneaz kritikak sarri egingo diren arren, abantailak ezin ukatuzkoak izango dira. Aroa aldatzen ari da eta garai bateko norabide bakarreko dokumentuak sortzetik (norberaren kontsumorako), orain, elkarkidetzako ediziorantz mugitzen ari gara, ezaguerak partekatuz eta fitxategiak elkarrekin editatuz lan mardulak berehala egin daitezke-eta.

Duela gutxi Google Docs sistemaren bertsio mobila erabiltzen hasteko aukera ere izan dugu. Dokumentuak ikusi ez ezik, editatzeko ahalmena dugu jada. Pauso

handia eman da aspaldi honetan telefono sofisticatu erabilerrazak zabaldu direlako. Apple-ren iPhone-k eta Googlek bultzaturiko Android Linux sistema eragileak duten telefonoak baliatuz, urratsa egin da Interneteko gauzak gailu txikerretan ere erraz erabili ahal izateko. Aurreko belaunaldiko telefonoekin konparatuz, oraingoez, pantaila kapazitiboek esker, benetan lortzen ari da Internet eta mugikortasuna uztartzea. Horrela, gero eta maizago erreparatuko diegu pantaila txiki eta ertaineko aparatuei, mugikortasunerako baliagarriak izango zaizkigulako.

Quikoffice (6) izeneko suite ofimatikoa ere indartsu sartu da aplikazio mobilen esparruan; gainera, dokumentuak patrikako telefonoetan editatzeko aukera ematen du. Android 3.0 sistema duten aparatuetan ikusiko dugu suite hori. ■

Oharrak:

- (1) <http://docs.google.com>
- (2) <http://www.gladinet.com/>
- (3) <http://code.google.com/p/gdatacopier/>
- (4) <http://www.c4lpt.co.uk/recommended/top100-2010.html>
- (5) http://en.wikipedia.org/wiki/Google_Docs
- (6) <http://www.quickoffice.com>

EAEko hiriburuak boladan

Nazioarte mailako izendapenak jaso dituzte hiru hiriek

JON ARIZKUN
KAZETARIA

Bilbon ez dira haserre. Industrian oinarritutako hiri bat izatetik mundu mailan zerbitzu-hiri eta modernotasun eredu izatera igaro da. Horra zergatik izan den Bilbo Shangaiko Erakusketa Unibertsalean. Gasteizen, harro dira, ingurumenarekiko konpromisoa bizi du hiriak aspaldi, eta prest dira berdetasunaren bidean sakontzeko. Europako Hiriburu Berdea izango da datorren urtean. Donostian bihotza betean ari dira bultzatzen

herritarrak –ikusia dugu Olatu Talka– 2016an Europako Kultur Hiriburu izan dadin, hezkuntza eta kulturaren aldeko apustu sendoan. Hiru hiri, Euskal Herritik Europara eta mundura bizi direnak, bertatik bertara.

Iragan azaroaren 9an heldu zen berria Stockholmetik EAEko hiriburura: “Gasteiz 2012ko Europako hiriburu berde izendatu dute”. Europako Batzordeak egin zuen izendapena, ingurumena zaintzen duten hiriak saritzeko ekitaldian. Gasteizek Hanburgoren eskutik jaso zuen lekukoa, eta saririk gabe utzi, aldiz, Europako beste zenbait hiri guztiz erakargarri, nola diren Bartzelona, Malmö (Suedia), Nuremberg (Alemania) eta Reykjavik (Islandia).

“Europako hiriburu berde” izendatzen duten hirietan hirugarrena da Gasteiz, Stockholmen eta Hanburgoren atzetik. Patxi Lazkoz Gasteizko alkatearen hitz ederretan, izendapena “30 urteko ibilbide baten bilakaeraren saria da, garapen jasangarriaren aldeko konpromisoaren aitorrtza”.

Europako Batzordeak jakinarazi duenez, bestalde, Naoned-ek (Bretainia) hartuko du Gasteizen lekukoa.

Bilbok Gasteizek baino lehenago jaso zuen ohorea: iazko Expo Shangain (Txina) egoteko gonbita. Mundu osoko 113 hiriren artean, hiri-jarduera onena zuenarik bat da Bizkaiko hiriburua, Shangaik erakutsi duenez. Hiria Shangain egoteko lanen koordinatzaile eta Bilbao Next-eko zuzendari nagusi Marcos Muroren esanetan, “Bilboko hiri-eraberritzea bakarra da munduan, oroz gain hiriaren erdialdean berreskuratzeko izan duen azaleraren tamaina handiagatik. Guggenheim museoa eraldaketaren sinboloa da; baina hiriaren aldaketa ikusgarria hirigintza, ekonomia eta gizarte neurri askoren emaitza izan da”.

Shangaira heltzeak, bestalde, Bilbo inbertsio destinatutzat sustatzeko aukera ezin hobea ekarri du.

Azkenik, Donostia dugu, 2016an Europako Kultur Hiriburu izateko bidean urratsak egiten ari den hiria, izendapenari dagokion azken faseari begira dagoela. Esaterako, datorren apirilaren 22an emango du Donostiak hautagaitza dosierra, eta hilabete geroago, maiatzaren hondar egunean jasoko du epaimahaiaren ikustaldia. Azkenik, ekainaren 27-28an egingo da ahozko defentsa.

Bost dira Donostiarekin batera azken fasera iritsi diren Espainiako hiri hautagaiak: Burgos, Kordoba, Las Palmas, Segovia eta Zaragoza. Izendapena jasotzeko itxaropenari dagokionez, Donostia “hagitz ongi kokaturik” dago, esan ohi denez. Madrilen, 2010eko irailean, 16 hirik epaimahaiaren aurrean egindako proiektuaren ahozko defentsan, esate baterako, Donostia 2016k emaitza onak izan zituen. Finalera pasatzeaz gain, epaimahaiak oso positiboki baloratu zituen proiektuaren programa kulturalaren “originaltasuna eta kalitate maila altua”, “herritarrek erakutsi duten konpromiso eta parte hartze aktiboa” eta “hiriaren ausardia indarkeria eta terrorismoa arazo larriek” kulturaren bidez aurreratu dituztenak.

Bilbo, Expo Shanghai 2010. Gasteiz, Europako Hiriburu Berdea 2012. Donostia, Europako Kultur Hiriburua 2016?

Sasoi oneko boladan dira EAeko hiru hiriburuak nazioarte mailan ere.

Bilbo, Expo Shanghai 2010. Gasteiz, Europako Hiriburu Berdea 2012. Donostia, Europako Kultur Hiriburua 2016?



MARCOS MURO
Bilbao Next

Zer esan nahi du Bilbo munduko erakusleihoan egoteak?

Bilbo 2010eko Shangaiko Erakusketa Unibertsalean egoteak hiriaren irudia mundu-mailan indartzeko eta Bilbori ospea emateko balio izan du. Kapital ekonomikoa sortzen eta euskal enpresa-sarea indartzen lagundu du eta, bide batez, baita euskal kulturaren ezagutza hedatzen ere. Mundu-mailako oihartzun horren adierazle gisa zera aipa dezakegu: Expoa zela-eta Bilbo mundu osoko komunikabideetan agertzeak bost milioi euro baino gehiagoko balioa izan zuela. 800 bat albiste sortu ziren Bilboren

inguruan prentsa idatzi, irrati eta telebistan, eta 1.700 milioi pertsona baino gehiagorengana iritsi ziren albiste horiek. Azpimarratu beharra dago Bilbok Shangaian izandako erakusketa guneak 1.260.000 bisitari izan zituela, nazioarteko zenbait pertsona ospetsu eta Txinako goi-mailako erakunde- eta enpresa-arduradunetz gain.

Zer onura dakartza Bilbo Shangaiko mundu erakusketan egon izanak?

Fruituak erakusketa amaitu aurretik ere hasi ziren jasotzen. Joan den maiatzean, “hiriaren nobeltzat” jotzen den Lee Kuan Yew saria jaso zuen Bilbok, sari horren lehen edizioan. Singapurreko Hiri Berroneratzearen Agintaritzak eta Hiri Bizigarrietarako Zentroak babestutako sari horrek gure hiriaren eraldaketa, jasangarritasuna eta hiri-bizitzaren kalitatea aitortzen ditu mundu mailan. Bestalde, Shangaian parte hartzeagatik, erakunde- eta enpresa-kontaktuetako nazioarteko sare bat sortu ahal izan da, eta harreman zuzenak ezarri dira Txinako ekonomiaren zenbait sektore

ordezkatzen dituzten 300 agente baino gehiagorekin. Sare horri esker nabarmen hazi da Bilboren eraldaketa ezagutzeko hiria bisitatzen duten nazioarteko delegazioen kopurua.

Zein izan da mundu erakusketan egoteko baliatu duzuen filosofia?

Gure erronketako bat Shanghai 2010ean munduari Bilboren benetako idiosinkrasia aurkeztea zen. Benetan garena erakutsi nahi genuen: tradizioetan aberatsa den baina begirada etorkizunean jarria duen hiri bat; hiri eroso, irisgarri eta ondo komunikatua; kultura eguneroko jardueraren parte den hiri bat; bizitzeko eta lan egiteko hiri bat. Hau da, pertsonari garatzeko eta zoriontsu izateko aukera ematen dien hiri bat. Argi genuen, kultura Bilbo berriaren euskarrietako batenez, gure erakusketa guneak proposamen artistiko gisa diseinatuta egon behar zuela. Eta halaxe egin genuen, hiriaren historia markatu duten hiru iraultzak (industriarena, hiriarena eta ezagutzarena) eskultura moderno batekin irudikatuz. Munduari erakutsi nahi genion zer gertatu zitzaigun Bilbon eta zer egin dugun eta norekin egin dugun; eta norekin egin dugun horren erantzuna gure euskal enpresekin da. Horregatik, gure enpresak nazioartekotzen saiatu ginen, Bilboren eraldaketa erakutsiz.

Nola bizi izan du herritarrak albisteak? Zein erreakzio izan du?

Herritarrak izan dira Bilboren eraldaketaren protagonista nagusiak. Hiri honetan bizi garenok gogor egin dugu lan, Bilbo industria-ereduan oinarritutako hiri bat izatetik mundu mailan zerbitzuetako hiri eta modernotasuneko eredu izatera igarotzeko. Herritarrek ondotoxo dakite zaharberritze horren protagonistak eurak direla, jakitera eman nahi dute, eta, beraz, onartzen dute hiriaren nazioarteko sustapena orainerako eta etorkizunerako inbertsio bat dela.

Era berean, Expon egoteak gure autoestimua berritzeko eta bilbotar izatearen harrotasuna potentziatzeko balio izan digu bilbotarro. ●



SANTI ERASO
Donostia Europako Kulturaren Hiriburuko Bulegoa

Zer onura dakartza Europako Kultur Hiriburuko izendatua izateak?

Europako Kultur Hiriburuko izatea erronka bat da eta, aldi berean, aukera handi bat. Kultur Hiriburuko izatea lortzen duen hiriak helburu honexekin egingo du lan: Europako kulturen aberastasuna, aniztasuna eta ezaugarri komunak indartzea. Donostiak lortzen badu 2016ko Kultur Hiriburutza, onurak nabarmenak izango dira. Besteak beste, Donostiako kultur politikak eraldatzen lagunduko digun kultur proiektua garatuko da, Giza Eskubideen aldeko gizarte-konpromisoa indartzeko bultzada emateko balioko du, eta baita kanporaketa eta indarkeria forma ororen kontrako gizabidezko asaldaketa sendotzea ere. Etorkizunean elkarriketarako, elkarbizitzarako eta bakegintzarako prozesuan parte hartzeko kulturak duen funtsezko eginkizuna aintzat hartzeko ere balioko du; gure europar dimentsioa ere indartuko da, ezinbestean, Europako gainontzeko he-

riekin erronka komunak eta aukerak partekatuz, prozesu aberasgarri batean, hiriaren eta elkarrekiko ikaskuntzaren esperientziatik abiatuz. Horrela, elkarbizitza eta eraldaketaren eragiletzat kultura eta hezkuntza dituzten europar hirien sareko erreferente bihurtuko litzaiteke Donostia.

Izendapena lortzen ez bada...

Dss2016eu proiektua epe luzerakoa eta iraunkorra da. Hiriburutza lortu ala ez lortu, hautagaitzaren eraikuntzan partaide izan diren eragile guztiek elkarrekin egindako lanari esker eragingo diren aldaketak gerora ere irautea du xede nagusi. Azken batean, hautagaitzak berak, hiriburutza erdietsi ezean ere, Europar egiten den sareko lana, lan sistema berriak eta konexioak hirian barnerratzea eta sustraitzea ahalbidetuko du. Donostia 2016 hautagaitzak herritarren sortzeko gaitasuna agerian jartzeko saiakera nabaria egin du orain artean. 2016 Bizi eta Olatu Talka bezalako ekimenak etorkizunera begira landatutako haziak izan dira. Horien bitartez, herritarrak mobilizatzea, parte-hartzea gizartearen enbor bihurtzea eta kultura egunerokotasunera gerturatzea lortu nahi izan da, eta hala izan dadin espero da. Prozesuan ikasi eta lortutakoak, hiriak dituen erronka eta itxaropenei elkarrekin aurre egiten jakiteko balioko du. Kultura, hezkuntza eta herritarren energiaren alde aritu da hautagaitza eta apustu hau 2016 urteaz gaindikoa da; izendapena lortu ala ez, tinko iraungo duena, ez bairik gabe.

Zein da hautagaitzaren atzean dagoen filosofia?

Donostia 2016 proiektua parte-hartze prozesu zabal, ireki eta plural baten ondorioa da; ideiak, ezagutzak eta esperientziak eskaini dituzten eta oraindik ere eskaintzen dituzten pertsona askoren parte-hartzearen eskutik sortua. Proiektua era sortzaile batean eta Europarekin

sarean herritarrek sorturiko ekintza etengabeak izatea nahi dugu, zeintzuek gora egingo duten punturik gorenean, 2016 urtean, kultur sistemarekin bat egin eta hori eraldatuko duen eragin bat lortzeko. “Herritarren energia-olatuak–Elkarbizitzarako kultura” kontzeptupean, Europa eraldatzen lagunduko duen nazioarteko kultur gertakizuna du helburu Donostia 2016 Hautagaitzak.

Zein esperantza duzue?

Lehiaketaren azken fase honetan inoiz baino ilusio handiagoz dihardu hautagaitzaren Bulegoak, izan ere gure ahalegina, epaimahaiak baloratzeaz gain, herritarrek ere baloratuko duten uste sendoa baitauekagu. Herritarrak baitira gure proiektuaren egiazko indarra eta elkarbizitza, hezkuntza eta kulturarekiko apustuaren adierazgarri garbia. Esperantza badugu, ez soilik epaimahaiak proiektua ona dela esan digulako, baita guk hala sinesten dugulako ere. ●



GORKA BELAMENDIA
Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako
Ikastegia

Zer onura dakartza izendapenak?

Bat baino gehiago, eta asko, seguruenera. Dena dela, aurretiaz obligaziozko lanak egin beharko ditugu, onura haiek

iristekotan. Hasteko, lurzorua erabilerak jasangarriarekiko Gasteizek duen konpromisoari eta hiriaren diseinu trinkoari eutsi beharko diegu. Horrela, soro eta zelaiak erabiltzea gutxituko dugu, eraginkorrago izango gara materialak, ura eta energia erabiltzeari dagokionean, eta hiri-zerbitzuak hobeto kudeatzen lagunduko dugu. Mugimendu Jasangarriaren Plana aitzinatu behar dugu, hau da, gaur gaurkoz autoek erabiltzen duten espazioaren %70 oinezkoentzat berreskuratzea. Eta, nola ez, Hiri Paisaiaren Plana sendotzea dagokigu datorren Hiri Ordenamendurako Plan Nagusian, honen bidez hura indartzeko jarduerak aurkeztu ahal izango ditugu-eta.

Izendapenak zer lan dakarkio hiriari?

Mugikortasun Jasangarriaren Plana, bizikleta erabiltzea, ur-kontsumoa murriztea, erabili ondoren naturara isurtzen den uraren kalitatea hobetzea, Eratzun Berdea... ez dira nolanhiko ekimenak izan. Aurreko garaia eta ondokoa markatzen dituzte Gasteizen. Lan handia egin da aurretiaz: ibilgailu partikularren erabilera galgatu da, garraio kolektiboak 500.000 erabiltzaile baino gehiago ditu, herri garraioek %14,5 hobetu dute zerbitzuen abiadura, eta %6 murriztu errekintzaren kontsumoa. Bizikleta, gero baino gero gehiago erabiltzen da; 18.000 bidaia egin ohi dira egunero batez beste. Oraintxe, 97 kilometro bidegorri ditugu eta Bizikleta Mugikortasunaren Gida Planaren proposamenaren arabera 60 gehiago izango dira. Oinezkoen Mugikortasun Gida Plana ere lantzen ari gara, herritar guztiak erraz irits daitezen egunero lan eta eginbeharretara.

Ur-kontsumoa murriztea eta hobeto kudeatzea ere baitezpadakoa da hiri jasangarria izan nahi badugu. Ura Aurrezteko Plan Integrala abiarazi zuen Gasteizek 2004an, eta etxeko kontsumoa 117 litroa, biztanleko eta eguneko, murriztea lortu zen. Oraingo plan

berriak, Etorkezun Plan izenekoak, kontsumoa ehun litrotik beherakoa izan dadin du helburu, eta sarearen eraginkortasun maila %90etik gorakoa izatea.

Ekimen berriagoetan zein dira aipagarrien?

Badira ingurumen estrategia gehiago ere. Esaterako, auzo berrien birdentsifikatzea, hondakinen bidezko energia ekoizpena, euri-ura biltzeko lurteko tankeak martxan jartzea, estolderia sareko hodi zaharrak ordezkatzeko akuiferoa kutsa ez dezaten, energetikoki jasangarri izango den eko-auzo kontzeptua garatzea, ibilgailu elektrikoa sustatzea, kutsadura akustikoa gutxitzea, etab.

Ondare naturalari eusteko eta areagotzeko ekintzen artean da, adibidez, Eratzun Berdea sendotzea, orain dituen 613 hektarea 787 izan daitezen lan egitea, Olarizuko Lorategi Botanikoa handitzea 48 hektarea izan arte, Zadorra ibaiaren erregulazio hidraulikoa eta ingurumen berriztatzea, eta Gasteizko Mendien Natur Parkea sortzea, hau da, 6.171 hektareako baso-azalera.


Hiriburu Berde izendapena gorabehera, aipu eta sona handia du hiriak aspaldian...

Urteak dira-eta jasangarritasunaren eta ingurumenaren aldeko apustua egin zutenetik. Horra, esaterako, 80ko hamarkadan oinezkoentzako eremuak sortzea, gizarte-etxe sarea abiaraztea, edo Agenda 21 asmatzea. Gasteizek natur ondareari duen balioa eman zion, eta arlo horretan ageri ziren problemak konpontzen saiatu zen, soluzio bila abiatu zen, udalaren arazoaren artean giltzarri eta lehenestekoa zela erabakita. Gasteizen aberastasuna da, batik bat, hiria inguratzen duen zonaldea, alegia, Eratzun Berdea: parkez eta korridore ekologikoz osatuta dago, eta espezie birlandatuen %30 autoktono da. ■

ITZULTZAILEAREN AMODIOA

XABIER LÓPEZ ASKASIBAR

IDAZLE ESKOLAKO IKASLEA



Hau maitasun historia da. (... ez, ez da horrela esaten...) Maitasun istorioa da hau. Liburutegi zaharkitu batean gertatzen den amodiozko kontakizun tristea, hautsez estalitako idaztien artean jazotzen den horietakoa. Lanparen argiak pixkanaka lausotzean, inguruko hots bakarrak hasperenak direnean eta sentimenduak airean biraka dabiltzanean, geure buruan zizelkatzen ditugun horietakoa.

Oposaketen etsamintetarako ikasten ari diren edadetuez beteriko tenpluan, bi arima ezezagunek egiten dute topo, istant batez gurutzatzen dituzte soak: ikasle eta itzultzailearen arteko begiradak iheskorak dira (... ez, ez dut tonu egokia-ekin asmatzen...). Oposizioen azterketak prestatzen ari diren ikasle azal laruen artean, bi maitale posibleren begiradek egiten dute topo, lipar batez. Ikaslea eta itzultzailea parez pare daude; kasualitatea izan da haien begiraden enkontrua, ez baitira normalean bazter horretan jesartzen. Baina gaur ohi baino ikasle gehiago dago, eta ez dute eserlekua aukeratzetik izan (... *kasualitatea* beharrean, *ustekabea* erabil dezakezu...).

Biak ala biak lotsatiak dira, horregatik urduritasuna gorputzean hedatu zaie, barrenak kutsatzeraino. Artega, ikaslea ez da gai Kode Zibileko lege txatxuak ikasteko. Asaldatuta, itzultzailea ez da gauza txekierazko hitz arrotzak antolatzen.

Giro arnastezinean itota, ikaslea eserlekitik altxatu eta komunera abiatu da. Alde egin aurretik, edonori oharkabean pasako

litzaiokeen keinu soil batez, itzultzailearen besoa nahi gabe ukitu du. Larruazaleko hotzikara biziaren eraginpean, itzultzaileak ingurura begiratu du; inor ez da ezertaz jabetu. Irudipena ez ote den izango galdetzen dio bere buruari. Eta imintzioaz zerbait garrantzitsua esan nahiko balio? “Altxa zaitetz eta jarrai nazazu munduko azken muturreraino”. Ezin du aukera alferrik galdu. Zalantzati hasieran, adorea arnastu du aulkitik jaikitzeko. Baldarki lurrera bota ditu zenbait liburu, eta ikasleen isiltzeko txistuei entzungor eginez, komunera joan da lasterka.

Komun bakarra dago liburutegi osoan, beraz, hor egongo dela imajinatzen du. Ez da espero zuen lekurik erromantikoen baina maitasunaren bideak ezin asmatuzkoak dira (... ez dakit erlijioaren aipamen hau ulertuko den, ateo gehiegi dago gaur egun...). Ez da espero zuen lekurik erromantikoena baina maitasuna bitxia da. Azkenean, ikaslea aztoratuta aterata da komunetik; itzultzailea, zalantzek erasanda, ate aurrean geratu da mugitu ezinik. Elkarri begiratu diote.

–Barkatu atrebentzia, baina zerbait esan behar dizut –xuxurlatu du ikasleak.

–Bai? –adierazi dio itzultzaileak, begiak dir-dir kutsakorrean bustita.

–Ez dakit gauza hauek nola esan; baina, komuneko papera bukatu da.

Isiltasuna nagusitu da eta ikasleak alde egin du itzultzailearen “eskerrik asko” lotsatia entzun gabe.

(... baina zer ipuin amaiera klase da hau? Tontotzat hartu al gaitu idazleak? Ezin da

horrela bukatu, beste modu bat bilatu behar da...)

Komun bakarra dago liburutegi osoan, beraz, hor egongo dela imajinatzen du. Ez da espero zuen lekurik erromantikoen baina amodioa gutxien uste duzunean etorri ohi da. Azkenean, komuneko atea ireki eta zimurtutako agure bat irten da.

–Gazte, komuneko papera amaitu da.

Harridurari ezin eutsirik itzultzailea arrapaladan bueltatu da ikasgelara, baina heldu denerako ez dago ikaslearen arrastorik, inoiz existitu ez balitz bezala alde egin du.

(... hobe, baina oso tristea. Berriz saiatuko naiz...)

Komun bakarra dago liburutegi osoan, beraz, hor egongo dela imajinatzen du. Komuna ordea, hutsik dago, ez dago ikaslearen arrastorik. Itzultzailea korrika kalerantz abiatu, baina ezin izan da irten, sarraila giltzaz itxi dute eta. Itzultzailea kolpeka hasi zaio ateari, amorruguz egurrezko ate sendoari, dinbi-danba; nekearen nekeaz, atea ireki ezinik, amore eman duen arte. Horrezkero ezin izan du inork liburutegitik alde egin eta eskolatutako hilotzez bete dira apalak. Maitasunak, izurriteak bezala, inguruan duen guztia suntsitzen baitu.

(... dibertigarria da, nahi dudana amaiera asma dezaket; azken finean, jendeak ez daki txekieraz eta testua erabat moldatuta ere, ez da inor ohartuko. Ondotik pasa berri den ikasleak besoan ferekatu al nau?...)

Komun bakarra dago liburutegi osoan... ■

ZURE ITURRI FRESKORA NATOR

EDORTA ESPAÑA

URIBE KOSTAKO ZERBITZU

MANKOMUNITATEKO ITZULTZAILEA

Oraindik ere ez dakit nola gertatu zen. Landa baten bazterrean nengoen; beste maldan, baserri bat begi bistan. Hara hurbildu eta etxaurrean zegoen gizonari egin nion galdera:

–Egun on, jauna.

–Baita zuri ere –erantzun zidan gizonak.

Janzkera berezia zuen: soineko beltz luzea, eta, papar aldean, adur-zapiaren itxura zuen oihal-zati zuri bat. Apaiza zen, zalantzarik ez.

–Barkatu. Ikaburuko leizeetara sartu naiz, barruan okerreko bidea hartu eta hemen azaldu naiz. Esango didazu, mesedez, non nagoen?

–Nola ez ba! Axular baserrialdean zaude, Urdazubin, Nafarroa Garaian.

Bat-batean, intuizio moduko zerbait izan nuen, eta pentsatu nuena hitzez adierazi nion gizonari:

–Barkatu, baina, zu... zu... ez zara, bada... zure izena ez da Pedro izango ezta?

–Bai horixe! Ezagutzen nauzu ala? Pedro Agerre Azpilikueta nauzu, Sarako erreto-rea –erantzun zidan harridura apur batez.

–Axular?! –oihukatu nuen.

–Bai, Axular, plazer baduzu.

–Baina ezin liteke! Zu XVII. mendean joan zinen mundu honetatik, eta orain XXI. mendean gaude! –gaineratu nion arnas estuka.

–Ba... nik dakidala, XVII. mendean gaude.

–Tira, tira, ez dakit zer gertatzen ari den hemen. Baina zu baldin bazara diozuna, pozten naiz.

–Harritzekoa da erraiten ari zarena, seme, baina eskertzen dut zure errana. Eta zergatik alegeratzen zara, bada?

–Ogibidez itzultzailea naiz, eta aspalditik kezkatuta nabil euskarazko esaldien luzeraz eta periodoaz. Zuk idatzitako *Gero* liburuan oso baliabide interesgarriak erabiltzen dituzu perpausak luzatzeko, eta edukia, behar denean, trinkotzeko. Eta lan bikain horren egilearekin hitz egin ahal izatea ohorea da niretzat.

–Oi, adiskide, adiskide... Mila esker anitz zure lausenguengatik. Zure kezka perpausen luzera da, beraz. Eta nik zertan lagun diezazuket?

–Bada... apaiza zarela jakinda, aitortpena egintza dizut –esan nion hitz egin min.

–Eta zer da, bada, seme, zure arima penatu eta kezkatzen duena?

Esaldien luzera kezka

–Aitortzeko ditudanak hizkuntzaren inguruko kezka eta penak dira. Esan bezala, esaldien luzerak kezkatzen nau. Izan ere, pentsamendu eta ideia laburrak adierazteko balio duten egitura arautuek sarri traba handia ezartzen didate konplexutasun handiko testuak idatzi behar ditudanean. Eta, egunero, ustez belarrira samurrago sartzen diren testuak idazten saiatzen banaiz ere, estropezu egiten dut, zenbaitetan, XX. mendean nagusitu ziren gramatika-arau batzuekin. Zuk oso perpaus edo esaldi luzeak idazten zenituen, baina bitxia bada ere, zure idaztan-kerara ohitu ondoren, ulertu egiten dira zuk idatziak. Bekaitza dizut, jauna.

–Baina, zer diozu, seme! Bekaitza zazpi bekatu nagusietako bat da, eta giristino zintzoak bazter utzi behar du bere jardunean, Jainko jauna minduko ez bada.

–Bekaitza esan dut, bai, baina, agian hobe, miresten zaitudala esan izan banu. Alegia, ereduakoa iruditzen zaidala esaldiak luzatzeko duzun trebetasuna. Har dezadan adibide hau: “Iduriturik errege hari, ezen baldin Israelko seme gathibu bezala bere azpian zedutzan hek utzten bazituen bere plazerera eta aisiara bizitzera, urguillutzeko eta nabusitzeko bidean iarriko zirela, eta handik behar etzena sorthuko zela, egin zuen piramide batzuen egiteko gogoeta, asmua eta pensua”. Hau da, ondoriozko perpaus

baten barruan perpaus osagarri edo konpletibo bat, eta azken horren barruan baldintzazko bat. Ez da txertaketa makala gero! Egia esan, paragrafo hori irakurtzeko, melodia berezia behar da, bai; baina egia ere bada behin musika egokia intonatuz gero, konposizioa aurrera doala.

–Ez da hainbertzerako izanen, seme. Horrelakoak usu edirenen dituzu *Gero* liburuan. Bestalde, ohartuko zinen bezala, Sarako eskolako estiloa dugun idazleok, usu, *ezen* partikulaz iragartzen ditugu perpaus osagarriak. Nola girstinoen etxetako atarrietan gurutze bat jartzen den Jainkoak bedeinakatutako etxea dela adierazteko, hala *ezen* hitza ere perpaus osagarri baten hasieran gaudela jakinarazteko.

Perpaus osagarriak eta konplexutasuna: *ezen* katafora

–Baina hori ez ezik, baduzu beste abantaila bat ere zure lerroalde horretan, jauna: zure esana aditz nagusi batekin hasi duzu (“iduriturik errege hari...”), eta irakurtzen ari denarentzat mesedegarri gerta daiteke makulu hori hasieran jartzea. Gure garaian erabiltzen den euskara-egiturarik kanonikoenean, honela idatz liteke esaldia: *Israelko seme gathibu bezala bere azpian zedutzan hek bere plazerera eta aisiara bizitzera utzten bazituen, urguillutzeko eta nabusitzeko bidean iarriko zirela eta handik behar etzena sort-huko zela iduriturik errege hari, piramide batzuen egiteko gogoeta, asmua eta pensua egin zuen*. Ederra alde, ez duzu uste?

–Egia erran behar badizut, zaila da zuk eman bezala konprenitzea. Bistan da nire ibilbidea ongi ezagutzen duzula, eta halatan, jakinen duzu predikatzailea naitzela. Hori horrela, nik mintzatokian halako pasarterik errango banu, nehor gutik konprenituko lidake.

–*Ezen* partikula aipatu duzu. Batzuetan, perpaus konpletiboan hasiera gisa jar-

itzen duzu, baina beste batzuetan ez duzu erabiltzen. Zergatik hori?

–Bai, halaxe da, seme. Batzuetan usatzen dut, eta bertze zonzaitetan ez. Izan ere, partikula horiek hautazkoak izanik, ez da zertan beti erabili. Aukeran duzu. Baina iduritzen bazaizu erran nahi duzuna argiago adierazten dela horrela, ez dudarik izan; erabili. Are gehiago ideia trinkoen adierazteko eta konplexutasun handiko esaldien idazteko. Hori da nire aholkua. Eta ikusten dudanez, zuek bertze arau batzuk erabiltzen dituzue. Zein dira, bada, horiek?

–Hitz gutxitan azaltzen zaila da. XX. mendearen hasieratik joskera-arau batzuk zabaldu ziren idazleen artean, eta arau horietako bat zen aditzak perpausaren amaieran joan behar duela. Eskerrak gaur egungo idatz-joerak aldatzen ari direna, baina hala ere, aipatu dizkizudan arau horiek pisu handia dute euskal letretan. Hori dela-eta, neu, sarri, enkortsetaturik eta baldintzaturik sentitzen naiz neure itzulpenetan. Duela gutxi irakurri dudanez, “Nabarmena da gaur eguneko prosa estandarraren desbideraketa, ahozko eta tradiziozko moldeetatik. Eta beharbada du horrek guztiak zerikusirik, guk hala uste dugu, gaur eguneko prosa estandarrak, oro har, eta oso bereziki itzulpenek eta testu didaktiko eta zientifikoek, erakusten duten ulergarritasun, zailtasun, nekosotasun eta komunikatibotasun arazoekin” (Bittor Hidalgo, 1999).

–Ea, bada, ongi konprenitu dudana. Arau horiei jarraiki, esaldietan, aditzak gibelan paratu behar badituzue, zer gertatzen da subjektutik aditzera bitarteko informazio guztiarekin? Tarte horretan kokatzen duzue guztia? Nola joan liteke aditz

nagusia azalpen luze baten bukaeran? Eromen diskurtsiboa dirudi. Aditza perpausaren ardatza da, irakurleari informazio ezinbestekoa ematen diona testuaren ulertzeko.

–Zorionez, XX. mendearen amaieran, idazleen idaztanka aldatzen hasi zen, eta, esate baterako, perpaus konpletiboen antolamendua ere bai. Horrela, “*Etxea erosi behar nuela esan zidan Kepak ordenamenduaren orde*” (“menpeko esaldia + esaldi nagusia”), apurka-apurka beste hau nagusitzen ari da idazleen artean, alegia, *Kepak esan zidan etxea erosi behar nuela* (“esaldi nagusia + menpeko esaldia”). Kasu horretan, alabaina, menpeko esaldia ez da batere korapilatsua, eta lehengo moduan ere ez du arazorik sortzen. Arazoa, ordea, osagarri luzea duten esaldietan hasten da. Eta horren harira, nik neuk, gogoeta luze baten ondorioz, uste dut periodo luzeko perpausetan ez dela nahikoa “esaldi nagusia + esaldi osagarria” hurrenkera, eta egin den aldaketa hori garrantzitsua izanda ere, zerbait gehiago behar dela. Garai batean, honelako ordenamendua erabiltzen zen sarri, ia beti: *Honen bidez, otsailaren 3an, eguraldia eta Jaungoikoa lagun, Azkar mendira doan bidea auzolanean konpondu behar dela adierazten zaie urdazubitar guztiei* (“esaldi osagarria + esaldi nagusia” hurrenkera). Hurrengo urratsa, gaur egun oraindik ere hedatzen ari dena, “esaldi nagusia + esaldi osagarria” da (*Honen bidez urdazubitar guztiei adierazten zaie, otsailaren 3an, eguraldia eta Jaungoikoa lagun, Azkar mendira doan bidea auzolanean konpondu behar*



Ordenamendu neutroa eta ordenamendu markatua

dela). Aurrerapauso handia da, nire ustez, egindako aldaketa, aurrera pasatu baita diskurtsoaren oinarria den informazio-gune nagusia, aditz nagusia alegia; baina ustezko “jatorrizko” egitura hark eskaintzen zuen lotura (...*dela adierazten zaie urdazubitar guztiei*) desginda geratzen da kasu askotan, elkarrengandik urrun samar geratzen direlako osagarritasuna adierazten duen atzizkia (-*e/la*) eta aditz nagusia. Eta hain zuzen, oraingoan ere zure altxortegitik hartuko dut honako proposamen hau, beste batzuek ere badarabiltena: administrazioko testuetan ere, perpaus osagarri konplexuak idatzi behar ditugunean, *ezen* partikula erabil genezake, menpeko esaldiari dagokiona zer den argi gera dadin. Zer esanik ez konpletiboaren barruan beste menpeko bat bada.

–Bizi naizen XVII. mende honetan, guk ez dugu zuen jiteko araurik, eta hori onerako zein kalterako. Nehork ez digu erraiten gramatika aldetik ongi dagoenentz; baina, era berean, nehon ez dugu edireiten gure dudetarako aterperik. Gure belarriek eta senak agintzen digutenari jarraiki idazten dugu, eta perpaus luzeen beharra badugunez –Jainkoaren erranak hala eskatzen baitigu–, ahozko hizkerak emaiten dizkigun zenbait bide egokitu ditugu esaldien luzatzeko. Neroni ere zuk diozun egituraz (subjektua-objektua-aditza) baliatzen naiz usu, ezin uka; baina eman nahi dudan ideia konplexutasunak hala eskatzen didanean, esaldia aditzaren ezkerrean luzatu orde, eskuinera luzatzen dut, hau da, aditza aitzinera eramanda.

–Hain justu ere, joera horretatik doaz gaur egungo estilo-aldaketak. Etxeparek zioen bezala, euskara plazara atera behar dugu, baina hori gertatzea nahi badugu, ezinbestekoa da, nire ustez, malgutasun handiagoa ezartzea gure hizkuntzari (apurka-apurka lortzen ari da). Sarri entzun dut euskararen ordenamendua ez dela beste hizkuntza batzuen bezain zurruna, eta hurrenkeraren ezberdinak onartzen dituela, baina aditzaren kokapenaz ari garenean... hor gauzak korapilatzen dira. Esan bezala, itzultzailea naiz, eta idazle gisa, bete egin behar ditut Euskaltzaindiak –hizkuntzaren akademiak– ezarritako arauak, noski. Eta arau horietako batzuk kontuan hartuta, iruditzen zait gaur egungo idaztanterak periodo edo esaldi laburrak eskatzen dituela hartzaileak ulertuko baditu. Arau horiekin, egia esan, oso perpaus luzeak idatz daitezke, dudarik ez, baina atzerakargaz beteta, hau da, esaldiaren pisu garrantzitsua atzean jarrita, eta horrek, sarri, bera-ekin ekartzen du testua berriro irakurri behar izatea. Hori saihesteko, gaur egungo arauen ikuspuntutik hain kanonikoak ez diren baina zuek lasai-lasai erabiltzen zenuten hainbat egitura erabil liteke; eta, zorionez, gero eta gehiago erabiltzen ditugu horrelakoak. Esate baterako, *izan* aditzak aurkezle gisa diharduenean edo definizioetan: *Dekretu honen helburua eskola-orduz kanpoko ekintzen eremuan ikastetxe bakoitzean garatzen diren jardueren plangintza martxoaren 23ko Aginduaren arabera egokitu eta ikastetxean hizkuntza-trebetasunak lantzeko balio duten tresnak bultzatzea da*. Egia da, bai, lerroalde hori hainbat modutan idatz

liteke, egungo arauak trasgreditu gabe (*Dekretu honek bi helburu ditu: bate-tik,...; eta bestetik,...*). Baina zuek erabiltzen zenuten era ere hor dago: *Dekretu honen helburua da...* Beraz, laburbilduz, gaur egungo arauekin, periodo laburreko esaldien aldekoa naiz, eta ahalik eta anafora eta katafora gehien erabili, lotura eta bide-seinale gisa, hurrenez hurren. Zuk diozun bezala, esaldi korapilatuak eskuinera luzatu, eta ez ezkerrean, ahal denean betiere, noski.

–Esaldi laburren aldeko ageri zara, beraz. Baina, ene iduriko, batak ez du bertzea kentzen. Nik eskiribatutako liburuan ikusiko zenuen bezala, jakin gabe, baina nik ere betetzen dut, usu, aditza esaldia-
ren bukaeran paratzeko araua. Hala ere, eman beharreko ideia trinkoa eta luzea denean, bertze baliabide batzuk ere erabiltzen ditut. Adibidez, hautatu duzun esaldian (“Iduriturik errege hari...”), zuen garaiko arauen aldean, nolabaiteko hiperbatona erabili dut eduki korapilatuaren emaitetako. Agian, zuen hitzekin erranda, honela formula liteke proposamena: testu konplexuetan, ordenamendu neutrotik urruntzen den ordenamendu markatuak “egitura iragarle” gisa joka lezake (“Iduriturik errege hari...”), eta maila konplexuko edukien adierazteko balio lezake, esaldiak eskuinera luzatuz.

–Ene!!! Berandu egin zait, erretore jauna. Gustura egongo nintzateke zurekin luzaro horretaz hitz egiten, baina ilundu baino lehenago itzuli behar dut. Gainera, ea bueltako bidea aurkitzen dudan.

–Bai, seme, ez ibili luzamendutan, eta ez utzi geroko orain egin behar duzuna.

–Mintzagai izan dugun gaian bezala, hortaz. Atsegina izan da zurekin hitz egitea, jauna. Agur.

–Adio, seme, berriro plazer duzun arteino. ■

Kreatibitatea nola kudeatu erakundeetan

“Zerbait egin nahi duenak beti aurkituko du bideren bat horretarako... Ezer egin nahi ez duenak beti aurkituko du aitzakiaren bat ezer ez egiteko”

JOSEBA ALAVA
SAYMA

Enpresek eta erakundeek arin eta ondo erantzun behar diote bezeroek eskatutakoari, eta, gaur egun, gero eta trebeagoak izan behar dute horretan; beti konponbide bila, beti aldatu beharrekoa aldatzeko prest, eta beti-beti errealitateari begira.

Zer behar dute erakundeek? Jendea lane-rako prest, irudimena argi, hobetzeko eta berritzeko bidean beti, ikusmolde berriei eta etengabeko aldaketei erantzuteko gertu.

EFQM ereduaren termino-zerrendan honako kontzeptu hau azaltzen da: “Sormena eta berrikuntza bultzatu”. Horren deskribapena, hauxe: “Erakunde bikainek gero eta balio handiagoa eta gero eta emaitza hobeak sortzen dituzte etengabeko berrikuntza sistematikoaren bidez. Horretarako, interes-taldeen sormena baliatzen dute”.

Azken batean, erakundeek modu egokian eta tentuz bideratu behar dute pertsonen sormen hori, batetik, beren estrategiarekin bat datozen proposamenak gara ditzaten, eta, bestetik, pertsonen

gaitasun horiek lehiatzeko abantailen bila erabil daitezten.

Baina, zer da kreatibitatea?

Gehienetan, kreatibitatea aipatzen dugunean, artea, ikerkuntza edo ideia originalak etortzen zaizkigu burura... baina, enpresentzat hori ez da nahikoa. Ideia batek kreatiboa izan nahi badu, egokia, baliagarria eta bideragarria izateaz gainera, eragin zuzena izan behar du erakundeetan.

Kreatibitatea zer den azaltzeko definizio asko dago; hona hemen, esaterako, Alonso Monreal-ena: “Kreatibitatea pertsonak duen gaitasuna da, informazioa eta jakintza beste era batera erabiltzeko eta arazoan aurrean ohikoak ez diren konponbideak topatzeko”.

Kreatibitatean maila bat baino gehiago bereizten dira, eta guk hemen bi aipatuko ditugu:

- **Eureka sormena:** hor jaiotzen dira ideia eta berrikuntza erraldoiak; aurkikuntza originalak izaten dira horiek. Ez da ohikoena, eta sormenerako berezko sena behar izaten da horretarako.
- **Garapenerako sormena:** zerbaiti tinko heldu, eta hobetu egiten du. Aldaketa txikiak izaten dira, erraz-erraz bideratzeko modukoak. Sormen mota hau izaten da ohikoena gizarteetan.

G.B. Shaw-ek zioenez, “Bizitzan ez da ibili behar nor bere buruaren bila, norberaren burua sortzen baizik”. Gaur egun, ez dugu ahaztu behar, norberaren ezaugarriak oinarritzkoak izanda ere, gaitasun horretan eragin zuzena izaten dutela erakundeak berak, gizarteak eta inguruko jendeak.

Honatz, kreatibitatearen osagai batzuk:

- Pentsamolde sortzailea bideratzeko gaitasuna izan behar da. Alegia, gai izan behar da gauzak beste ikuspegi batetik begiratzeko; itxuraz elkarrengandik urrun dauden ideiak eta kontzeptuak lotzen jakiteko; arazoak konpontzerakoan, malgutasunez jokatzeke; eta, konponbideak eta proposamenak egiterakoan, ingurukoei pentsarazten jakiteko.
- Proaktiboa izan behar da. Eragozpenak gainditzeko orduan, ekin eta eutsi egin behar zaio; eta erabakiak hartzeko arriskua hartu behar da, erakundeak berak ezarritako mugetatik harantzago.
- Maila bikaina izan behar da arlo teknikoan. Lan-esperientzia luzea izatea ere komeni da, bide horretan ikusitako eta ikasitako horiek guztiak ideia berriak sortzeko prozesuaren abiaburu izan daitezten.
- Norberaren ingurua sortzailea eta kreatiboa izatea ere lagungarri da, ideia berriak sortzen eta kreatibitatea gartzan laguntzeko.
- Barneko motibazioa. Pertsona kreatibo-sortzaileak duen jarrera horretan, batez ere, barneko motibazioa da oinarri; gauza ezberdinak era ezberdinetan egitea da. Lana bera da, izatez, motibagarri eta kilikagarri.

Kreatibitatea jarrera hutsa da, eta sustatu egin behar da, horretan behar beste inbertituta. Emaitzak begi-bistakoak izaten dira kreatibitatea benetan garatu nahi izaten denean.

Norberaren kreatibitatea nola kudeatu

Kreatibitatea da gaur egun enpresa batek izan dezakeen abantaila-iturririk handienetako bat. Lan-kontuetan nahiz arlo pertsonalean jendeak zer-nolako jarrera izaten duen funtsezkoa eta ezinbestekoa izaten da kreatibitate-prozesu bati ekiteko orduan.

Jende asko liluratu eta harritu egiten da jarrera kreatiboak ikusita, eta honela esaten dute: “NOLA EZ ZAIT, BA, HORI BERA NIRI LEHENAGO BURURATU?”.

Kreatibitate pertsonala mugatzen duten trabak ere badaude: pentsamolde mugatzaileak, nork bere buruari ezarritako trabak eta huts egiteko beldurra. Sentimendu horiek barne-barnean ditugu, eta subkontzientean dute jatorria; ezinbestekoa izaten da horiek denak gainditzea, sormena zabaltasun osoan kanporatzeko.

Egoera batzuetan beharrezkoa izaten da kreatiboagoa izatea, edo ohikoa ez den modu batean jardutea, lortu beharreko helburura iritsi ahal izateko. Baina egoera horietan, gure buru barruan itxi egiten da bat-batean sormenerako atea, eta, konturatu gabe, konponbideak ematerakoan edo proposamenak egiterakoan..., nahiago izaten dugu egoerak konpontzeko ditugun betiko moldeen arabera jokatu.

Bestalde, era askotako eraginak dira, bai geure barruan, bai kanpoan ere, kreatibitateari hazten laguntzen diotenak... eta horren jakitun izan behar dugu, dagokion unean sormen-hazi hori ernaltzeko prest egon dadin gure barnean. Hiru arlo hauek izan litezke gure jokamoldean lagungarri:

- 1. Pertzepzioak:** alde zurreratik finkatuta dauzkagun eskemak eta ulerkerak hautsi eta moldatzeko prest egon behar dugu.
- 2. Emozioak:** nork bere burua ondo eza-gutu behar du; jakin behar du bere izaera nolakoa den, eta norberaren indarguneak eta ahuleziak zeintzuk

diren, horrek onura handiak dakartzatza-eta.

- 3. Norberaren ingurune soziokulturala:** mugatzaile izan liteke askotan; baina, horren jakitun izanik, norberak erabaki dezake, goi-mailako helburu bat betetzeko denean, ohitura bihurtutako jokamoldeei jarraitu ala ez, prozesu kreatibo batean, esaterako.

Lantaldearen kreatibitatea nola kudeatu

Giza taldeak etengabe dabilta arazo hau edo bestea konpondu beharrean edo ideia berriak sortu nahian, eta, horrelakoetan, ezinbestekoa izaten da kreatibitate-prozesu bati ekitea.

Tamalez, enpresa askotan kreatibitatea ez da sustatzen... are gehiago, enpresa askok kreatibitatea hil egiten dute. Galdetu bestela, ea zer gertatzen den norbaiti ideia berriren bat bururatzen zaionean. Egia esanda, kreatibitatearen kontu horrek ez du lehentasunik enpresetan; zaila izaten da emaitzak neurtzen, eta ez da errentagarria izaten epe motzean. Gainera, oraindik ere askok uste dute pertsona jakin batzuk bakarrik ibil ditezkeela kontu horretan (artistak-eta).

Lankideetako bakoitzak jakin behar du norberak gauzak *nola egin* eta inori *nola egin eragin*; alegia, nola eginarazi. Aldaketaren tamaina ez da hain garrantzitsua, aldaketa bera baita funtsezkoa! Aldaketak erakundearen duen eragina eta pertsonengan sortzen den sentsazioa... horrek du benetan garrantzia!

Mikroaldaketak egitea da gure proposamena; jendeak traba gutxiago jartzen du horretarako, eta emaitzak ere errazago eta arinago ikusten dira.

Landare-hazia ez da edonon ernaltzen... lurra, ura eta eguzkia behar ditu. Sormenaren haziak ere oinarritzko baldintza batzuk behar ditu, eta horiek sortzen eta gozaten ahalegindu behar dugu enpre-

sako kulturaren ere. Bukatzeko, hona hemen aholku batzuk gure lan-taldean, edo erakundearen kreatibitatea kudeatzen ikasteko:

- **Kreatibitatea hautatu:** ez aukeratu beti zure moduan pentsatzen eta jokatzen duten pertsonak, eta bilatu aniztasuna eta ezberdintasuna zure lan-taldean.
- **Ez akabatu inoren ideiarik:** apalagoa izan behar da, eta ez dugu pentsatu behar munduko ideia-iturri bakarra garenik. Edonork izan ditzake ideiak, edozein eratakoak.
- **Utzi esperimentuak egiten; utzi huts egiten:** beldurrak (porrot egiteari beldur izateak) ezin du ekarri ikuspegi kreatiborik.
- **Sustatu barru-barrutik besteen kreatibitatea:** kreatibitateari laguntzeko orduan, askoz ere indartsuagoak dira barru-barruko motibazioak (lan ondo egiteak dakarren poza, esaterako) kanpoko motibazioak baino (dirua, sariak, etab.).
- **Eman hausnartzeko astia:** ahalegindu zaitez momentu jakin batzuetan eguneroko martxa estua hausten, taldean zein bakarka, etorkizunean loratuko diren ideia horiek ernaltzen joan ditezten.
- **Aniztasuna sustatu:** bide, esperientzia eta jakintza-arlo ezberdinetatik etortitako jendea elkartu eta batera lan egiten hasten denean, orduantxe jaiotzen dira ideia berriak.
- **Giro egokia sortu:** eguneroko martxan beharrezkoak ez diren errutinak kendu.
- **Ez tematu lehendabiziko ideian:** ez zaitez lehen ideiarekin konformatu, berdin dio zeurea izan zein beste inorena izan; handik eta hemendik, hartu ideia guztietatik onena, azken konponbidea hasierakoa baino ideia osoagoa izango da-eta horrela. ■



MUNDUA ONLINE

Sare sozialetan pribatutasuna nola gorde

LUIS ELIZONDO. luis@hegoa.info

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak kaleratu duen gida berriak Interneteko sare sozialetan pribatutasuna nola gorde behar den azaltzen du. Gidaliburua gazteei zuzentzen zaie, eta Facebook, Twitter eta Tuenti-n zuhur jokatzeko gomendio batzuk ematen dizkie. Sare sozialetako erabiltzaileei euren profil edo soslaietan datu pribaturik ez jartzeko aholkatzen die gidak, edo etorkizuna baldintza lezaketen daturik ez jartzeko.

Gida osatzen duten bideotutoretzetan argazki pertsonalen deskarga ez ahalbidetzeko gomendioa ematen dute, baita telefono pribatuaren zenbakia beste erabiltzaile batzuen eskura ez jartzeko, besteak beste. Hauexek dira bideotutoretzetako aholku batzuk:

Gomendiorik onenak!

Bideotutorial honetan pribatutasun-gomendio bizkorak emango dizkizute, zeure pribatutasuna eta besteena kontrolpean izateko. Nolako da pasahitz sendoa? Zein da profileko argazkirik egokiena? Zein informazio pertsonal eman beharko nuke eta zein ez?

Nola eman izena ondo Tuentin

Ez badaukazu profilik Tuentin, edo baten bati lagundu nahi badiozu bat sortzen, hauxe da has-teko lekurik onena. Izan ere, sarri asko, bizkor-bizkor eman nahi izaten dugu izena; baina, horrela eginda, ez gara sinatzen dugunaz enteratu ere egiten. Pasahitza zertarako den ere ez dakigu. Hona hemen konponbidea!

Pribatutasuna ganoraz konfiguratu

Tontakeria dirudi, baina ez da zure profilaren pribatutasuna ondo konfiguratu ezean, hain gutxi gustatzen zaizun auzokide hori ere sartuko da zure argazkiak ikustera (han agertzen zara zu goizaldeko ordu txikietan!). Eta atzo zer egin zenuen ere jakingo du (dentista, ezta?), eta bihar ze plan dituzun eta... beno, ulertu duzu, ezta?

Ikus-entzunezko gida hau Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren webgunean dago eskuragarri: <http://www.avpd.euskadi.net/s04-kontuzdt/eu>

Hezkuntza Sailak ekimen hau bere lan-plangintzan sartuko du, material didaktiko gisa, bai irakasle eta bai guraso-elkarteetara zabal-tzeko. ■

O-SAREAN: TELEMEDIZINA ZERBITZUA OSAKIDETZAN

Ekimen hau dela eta, telefonoz egin ahal izango dira hainbat kontsulta, gaixoa osasun-etxetik pasa gabe, eta aurrerago, Internet bidez ere egiteko aukera eskainiko da. Izan ere, O-sarean zerbitzuaren helburu nagusia gaixoei, herritarrei eta osasun profesionaleri artatze eredu berri bat eskaintzea da, presentziazkoa ez dena.

Hasiera batean, 400 mila bizkaitar izango dira ekimen honen onuradunak, baina urte bukaerarako zerbitzua EAEko beste lurraldeetara zabaltzea espero da. Eusko Jaurlaritzak O-sarean zerbitzuaren abantailen artean honako hauek azpimarratu ditu:

- Sanitatea, denbora libre gehiegirik ez duten edota mugikortasun arazoak dituzten gaixoei hurbiltzea.
- Bezeroei erosotasuna eta zerbitzu azkarragoa eskainiz, etxetik irten gabe artatze egokia ematea.
- Osasun zentroak libratzea, hainbat kontsulta telefonoz eginez. Soilik aurrez aurreko artatzea behar duten gaixoak agertuko dira kontsultetan.

TALENT HOUSE, GOI-MAILAKO IKERTZAILEENTZAKO EGOITZA

Ikerketa-zentroek (I+G+b) Donostiako Udalari kanpo-tik zetozen ikertzaileek egoitza aurkitzeko zailtasuna zutela adierazi zioten, eta behar honi erantzun nahirik, martxoaren 7an inauguratu zuten Talent House, Donostiako Aiete auzoan, goi-mailako ikerlarientzat egindako eraikina. Donostiako Sustapenak jarri du martxan ekimen hau eta Donostia ikertzaileentzat erakargarri egitea du helburu. Dena den, egoitza hutsa baino zerbait gehiago izan nahi du. Horrela, ikertzaileei harrera osoa eskainiko die hiriko bizimoduan murgil daitezten.

Hasiera batean, 80 ikertzaileentzako lekua izango du; 80 apartamentu egongo dira; batzuk lagun bakarrarentzako, beste batzuk familia osoa biltzeko.

Bestalde, askotariko alorretan ikertzen diharduten ikertzaileak bilduko dituela aprobetxatuz, ezagutza gizarteratzeko ere baliatu nahi dute. Hala, hainbat formatuko dibulgazio- eta trebakuntza-ekintzak egi-tea aurreikusi dute.

Aaaaa!! eta Eeeee!!

MANU ARRASATE

IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA

Aaaaa!! egiten zuten negar mutikoek. Eeeee!! egiten zuten negar neska txiki jaioberriek. Horrela iruditzen zitzaion behintzat apaiz bati, bataiarrian urez kristautu behar zituen umeen negarrak aztertuta, eta hala idatzita utzi zuen nonbait. Handik urte batzuetara, XIX. mendeko azken urteetan, Sabino Arana, euskal izendegia osatzerakoan, horretan oinarritu zen; nola berezitu, bestela, gizonetzkoen eta emakumezkoen izenak, euskaraz ez baitzegoen genero marka berezkorik? Hala hartu zuen, ba, *-a* bukaera mutilentzat, eta *-e* bukaera neskentzat.

Esan behar da gizonetzkoen izenek ez dutela arrakasta handirik izan, oso zaila baitzen ordura arte emakumezkoen ezaugarritzat jotakoa bat-batean gizonetzkoentzat erabiltzea. Hala ere, bizi-bizirik daude gaur egunean ere izen horietako batzuk: Joseba, Gorka, Jagoba... Emakumezkoen izenek bai; arrakasta izan zuten. Beharbada, frantsesez ere bukaera

bera dutelako Anne, Susane, Juliette... edo, agian, Ama Birjina askoren izenak ere *-e-z* amaitzen direlako: Leire, Nagore, Uxue, Arrate... Kontua da oraindik ere arrakasta handia dutela era horretako izenek: Josune, Iruñe, Ane...

Hizkuntzaren bitxikeriak dira, baina, seguru aski, istorio xume horren atzean bada historia sakonagorik ere. Zergatik ez zegoen ordurako ondo finkatutako izen euskaldunik? Euskal kulturak izango zituen, ba, bere izenak, utzi izan baliote behintzat. Toponimiakoetan halaxe ikusten da, nahiz eta latinetik hartutako antroponimoak eta santu-izenak izan sustraian: Donibane, Donostia, Donejakue... Eta euskal antroponimoak ere usu erabiltzen ziren Nafarroa erreinu izan zen bitartean, baita ondorengo mendeetan ere: Eneko, Erramun, Txomin...¹ “Erdal” izenen euskal egokitzapena ere bizi-bizirik egon da gaur arte: Mañaxi (Maria Ignacia), Joxerramon, Anttoni... baina gaizki idatzitako izentzat jo izan dira beti, ezjakinen adierazgarri. Zergatik ez dira, ba, kultura baten erakusgarri eta bilakaera izan?

Beraz, horiek denak ikusita, galdera bat baino gehiago datorkigu burura. Zergatik egon dira ia gaur egunera arte izen horiek debekatuta? Izan ere, Franco hil ondorengo garaiaz aparte, Errepublika garaian eta beste tarteren batean bakaerrik izan dira legezkoak.²

Gaur egun, euskal izendegia hortxe dago erabilgarri, ondo osatua eta indartua; gure umeen izenak aukeratu ditzakegu lasai, eta, zorionez, euskal antroponimok arrakasta handia daukate. Dena dela, generoaren kontuan egon liteke egun ere arazorik. Norbaitek agian esango du:

¹ Horri buruz oso artikulu interesgarria aurkituko duzue hemen: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euske-ra/50022.pdf>


² Debeku horietaz, eta euskal izenen kontrako jarreraz gehiago jakin nahi izanez gero, informazio zehatzagoa izango duzue esteka honetan: <http://www.euskomedia.org/PDFAnIt/Eleria/12/12021031.pdf>

zergatik Izar edo Haizea neska? Zergatik Ibai mutila? Nork ezartzen die izenei generoa?


Gogorazi behar da, maiz, Historiak berak baino indar handiagoa izan dezakeela oinarri zientifikorik gabeko iritzi batek hizkuntza edo herri baten bilakearan. Hori ilustratzeko, Sant Jacob aipatuko dugu (hortik Santiago, Diego eta Jaime sortu ziren gaztelaniaz; euskaraz, berriz, Jakes, Jakue eta Jagoba), gure historian garrantzi handikoak izan diren bi gertakari Donejakueri edo Santiagori lotuta baitaude.

Orreagako guduan, 778. urtean, Karlo-magno enperadorearen soldaduen aurka garaile atera ziren euskaldunak. Film gutxi egin da horretaz, eleberririk gutxi idatzi da. Gainera, idatzitako poema epikoetan arabiarrei eman zieten garaipena. Gatazka horretan hildako hogeita mila soldaduren hezurak daude hor nonbait, eta oraindik ez dakite zehatz zein tokitan izan zen gudu hori. Aldiz, handik 35 urtera, artzain batek argi batzuk ikusi zituen mendian eta han hezur batzuk aurkitu zituen. Garai hartako “ADN probak” eginda, Teodomiro apezpikuak berehala jakin zuen Santiago apostoluenak zirela. Bada kasualitatea, gero! Noiz? Arabiarrek ia penintsula osoa konkistatzekotan zeudela. Non? Oso leku estrategikoan, penintsularen ipar-mendebaldean; ezinbestekoa baitzen iparrari eustea, penintsula osoa ez galtzeko. Txarrena da Santiago apostolua Jerusalem hil zutela ia 800 urte lehenago. Nola agertu zen, ba, haren gorpua bat-batean Compostelan? Bada, sortutako mito baten eraginez, zazpiehun urtean egon ziren arabiarren kontra borrokan, eta penintsula osoa berreskuratu zuten; bide batez, Orreagako gatazkatik sortu zen erreinua ere eurentzat hartuta. Mitoa & Historia? Mito bihurtutako historiak daude, eta historia bihurtutako mitoak ere bai. Kontua da nork zer nola erabiltzen duen. ■

Hitz gezidunak

	Lemazaina	▼	Labore mota	▼	Gipuzkoa-ko hiria	▼	Akura-pektoak	▼	Itsas hegaztia
	Mugarriak		Jarraitzen dute		Kontso bikoitza		Erreka handi		
		▶		▼		▼		▼	
	IRUDI KO FRUTA	▶							
	Animalia adarduna								
Basa	▼	Soldata	▶	▼		Hitlerren jarraitzaile	▶		
Amildegia		Jira				Pl., zikin-keria			
	▶		▼				▼	Gutziz larritu	▶
								Bokala	
Asiako estatua	▶				Musika nota	▶	▼	Bizkaiko udalerrria	▶
Garraiatzea					Zangoaren atala			Iodoa	
	▶					▼		Iridioa	▶
								1	
... gabe, eten gabe	▶				Txiki, ttipi	▶		▼	Jainko egiptoarra
Musika nota					R birritan				Bada
	▶							▶	▼
		Ipar., ordua	▶	▼				Bi ken bat	
		Fosforoa						Kontso-nantea	
Bits	▶				Pl., dokumentu mota	▶		▼	

Goitik behera



Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da.

1. Pobreak.
2. Tamaina txikiko hegaztia.
3. Danbada.
4. To.
5. Uretan hil.
6. Intsektu mota.
7. Elizako ogia.
8. Zintzoa, jatorra.
9. Astearren bosgarren eguna.

SOLUZIOAK

⊕	⊕	K	A	I	O	A	⊕	A	T	⊕
M	A	I	Z	T	E	R	R	A	K	
I	R	U	N	⊕	E	⊕	I	⊕	T	
⊕	R	R	⊕	K	R	A	K			
G	A	R	I	A	⊕	O	I	N	A	
⊕	D	A	R	A	I	A	T	E	⊕	
L	E	M	A	R	I	A	⊕	R	A	
⊕	Z	⊕	S	A	R	A	I	O	A	
			⊕	B	I	R	A	⊕	P	
			⊕	L	⊕	G	⊕	S	A	

1. Txiroak.
2. Txoria.
3. Tiroa.
4. Tori.
5. Ito.
6. Oña.
7. Ostria.
8. Sotila.
9. Ostiral.

Hitz gezidunak

Goitik behera

Herri Ardurak

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

www.ivap.euskadi.net

Dudanet zerbitzua



Ongi etorri DUDANET zerbitzura: Gune honetan dituzu DUDANET zerbitzuaren aukerak



DUDANETen bilatu

Datu-basean dauden galdera eta erantzun guztiak kontsulta ditzakezu.



Egin Galdera

Egin galdera DUDANET zerbitzuari.



Euskalterm-en bilatu

Gure datu-basean hitz edo termino jakin baten ordaina aurkitu ez baduzu, saia zaitez hemen.



Nire galderen erantzunak

Hemen dituzu orain arte egin dituzun galderak, emandako erantzunak eta haien egoera.



Nire datuak

Zure datu pertsonalak alda ditzakezu.



Proposamenak

Interesgarri iritzitako proposamenak egin ditzakezu.



Inkestak

Zerbitzuari buruz duzun initzia ezagutu nahi dugu.

Zure hizkuntza zalantzak argitzeko DUDANET berria

www.ivap.euskadi.net

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

zure etxean doan jaso nahi baduzu,
idatzi helbide honetara:

IVAP
Donostia-San Sebastián 1
01010 Vitoria-Gasteiz
administrazioaeuskaraz@ivap.es

Abizenak

Izena

NAN/IFZ

ENA

Helbidea

Posta-kodea

Herria

Probintzia

Mugikorra

e-posta